

# GUaiXe.eus



**Waterpoloa**  
asteartean  
Lakuntzan



Kirolak >> 12

**Sakanako XIV. haur triatloia**  
jokatuko da bihar Urdiaingo  
igerilekuetan 10:30etik aurrera



Kirolak >> 13

## Langabezia urte erdi behera egiten

>> 5

## SEEK langabetuendako zerbitzua prest du

Langabeei eta lana hobetu nahi dutenei orien-  
tazioa eta bitartekaritza eskaintzen die

>> 8

### Irurtzun eta Iturmendi festa betean

Bakaiku lekukoa  
hartzeko prest

>> 6

### Olatzagutiko Garila Feministak ekitaldiak dakartza

>> 9

### Ijurkoren bakartzearen kontrako gose greba

>> 8



>> 7

## Birziklatzean, puntan



>> 15

### Dantza campusak 20 dantzazale elkartu ditu



Aralarko  
aingueruari  
haurrak  
aurkeztera >> 9

**MERKEALDIA**

**Sakanaoptika**  
optometria - audiometria - contactologia

Intxostia zeharbidea 10 • Altsasu  
948 563 124 • www.optikasakana.com

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



**Matilde**  
ZORIONAK abuela!!  
Asko maite zaitugu.  
Segi orain arte bezain  
jatorra.



**Ibon**  
ZORIONAK gure  
bihurri hori!!! Mila muxu  
denon partetik.



**Iزارo Ducar**  
Gerrikagoitia  
ZORIONAK sorgintxo!  
Maite zaitugu.



**Jose Mari, Izaro eta Unax**  
ZORIONAK aitona eta bilobei! Uztailearen 13an urte bat bete zenuten (aitonaren egun berean),  
eta begira zenbat handitu zareten dagoeneko! Muxu handi bat zuen familiaren partetik.



## Bazkideek deskontua

**Bakarra:** 4,00€

**Bazkideak:** 3,50€

## garilak

# 17-23

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Garabatos.** Garilaren 17an, ostiralean, 20:00etan Urdiaingo igerilekuan.

**Iker Lauroba & Itsasargiak.** Garilaren 17an, ostiralean, 22:30ean Altsasuko Haritza tabernan.

**La Furia eta Las Guindillas.** Garilaren 17an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko San Migel plazan.

### Dokumentalak

**Gonbidatu izatetik protagonista izatera.** Garilaren 17an, ostiralean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. Emanaldiaren ondoren foruma.

**Sahara maraton.** Garilaren 23an, ostegunean, 22:00etan Etxarri Aranazko plazan.

### Zinema

**En el ojo de la tormenta.** Garilaren 22an, asteazkenean, 22:00etan Irurtzungo Foru plazan.

### Mendi irteerak

**Finalista.** Garilak 19, domekan, goizean Altsasuko kirol etxetik. Altsasuko Mendigoizaleak.

**Ozako oihana.** Garilak 21, asteartean,

goizean. Irurtzungo Iratxo mendi taldea.

### Bizikleta irteerak

**Pirinioak (asteburua).** Garilaren 18an, larunbatean, 8:30ean Altsasuko kultur gune partetik. Zikloturista taldea.

### Bestelakoak

**Aralarko aingeruari haurren aurkezpena.** Garilaren 19an, igandean, 12:30ean Aralarko santutegian. Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradia.

**Guaixe.eus-eko komunitateko kide egiteko.** Garilaren 22an, asteazkenean, 11:00etatik 13:00etara Altsasuko azokan.

**Udako festa goxoa.** Garilaren 23an, ostegunean, 21:00etan Lakuntzako igerilekuan. 12 urtetik aurrerako gazteendako.

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Garilaren 17an, ostiralean, 20:00etan Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Garilaren 19an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

## SAKANA

# Guaixe.eus-eko Komunitatea azokan

**Sakandarrek Komunitatearen bidez www.guaixe.eus atarian parte hartzeko aukera dute. Horren berri emateko asteazkenean, 11:00etatik 13:00etara, Altsasuko azokan azalpenak ematen ditugu**

www.guaixe.eus berritzearekin batera sakandarren parte hartzea sustatzeko tresna gehitu genion: Komunitatea. Sakandarren arteko hartu-emanaren sustatzeko bide bat da. Komunitatean edozein sakandarrek, erakunde eta taldek bere leihoa du. Hartan idatziak, argazkiak edota galeriak igo eta ibarreko jendearekin partekatu ditzake. Sakandarrendako informazioa, entretenimendua eta komunikazioa, sakandarrek beraiek sortuak, guztia euskaraz. Sakanako euskaradunetik euskaradunera, elkarrekin ahaldunduz.

Komunitatea zer den eta kide nola egin azaltzeko Bierrik fundazioko langileak garileko azken hiru asteazkenetan Altsasuko azokan



Altsasuko azokan, komunitateko kide nola egin azaltzen.

### Informazio gehiago:

[www.guaixe.eus/info/komunitatea](http://www.guaixe.eus/info/komunitatea)

### Egutegia

Garilak 22  
Garilak 29

izanen gara, liburutegiko estalpean. Komunitatearekin interesa dutenak eta hura ezagutu nahi dutenak hurbiltzea besterik ez dute. Ezagutzen ez dutenendako web

orria bera ezagutzeko aukera aparta ere bada. Guztia anfitrioi baten eskutik.

## Ostiralero SAIOA

9:30etan

Gaurko gaiak:

- Asteko errebasoa
- Sakanako haur triatloia
- Herriko festak

Esataria: Maider

beleixe

107.3 FM  
www.guaixe.eus-en ON LINE

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

&gt;&gt; SAKANA

# Bernoako galtzada zati berriak argitara

Boluntarioek eta auzolanean aritu direnak bi astetan Etxarri Aranatzen 300 metro galtzada azaleratutako dituzte, Bakaikun beste 200 bat metro eta Iturmendin beste 400 bat

Iturmendiko eta Urdiaingo udalen auzolan deialdiari erantzunez, hiruzpalau iturmendiar, etxarriar, arbizuar eta hamar bat urdiaindar elkartu ziren. Haiekin batera atzerritik etorritako 7 emakume gazteak eta bi begiraleak aritu ziren. 10:00etatik 13:00ak bitartean Aitzkibiledo Ibarbeltz dermioen artean. Indarrak berreskuratzeko gosaria ere izan zuten. Nicolas Arbizuk galtzadari buruzko argibideak eman zizkien elkartu ziren guztiei.

Arbizurekin elkartu gara Bernoako galtzadaz gehiago jakite-



Larunbatean Iturmendin aritu ziren auzolanean.



ko. Esan digunez Etxarriko galtzada zatia "oso suntsitua dago, herri handia izatean asko ibili da han". Bakaikun azaleratutakoa "ederra" dela zehaztu digu, nahiz eta Etxarri aldeko Artasoro parajeen hainbat zatitan oso honda-

tuta dagoen. Iturmendin galtzada "ongi kontserbatzen" dela adierazi digu, "bide paraleloak egin zituztelako". Urdiainen Mariano Galartzak guztia azaleratu zuela gogorarazi digu. Arbizuk azaldu digunez, galtzada aza-

laraztearena "esker oneko lana da, egiten duzuna ikusten duzula".

Eta beste ezer baino lehen basora begira jarri gaitu eta gaztigatu digu gailurreria guztiko puntu baxuena Bernoa dela. Ondoren

Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo etxeak begiratzeko eskatu digu. "Ez dituzte ez nekazariak ezta ganaduzaleak egin, merkatariek, mandazainek, baik. Etxeak eta galtzadak horrela lotzen dira".

## gertutik >>

### Nicolas Arbizu Gabirondo

Tokiko historian aditua



#### Bernoako galtzada? Edo galtzadak?

Galtzada Ataundik etortzen zen. Galtzada-adar bana Urdiainen eta Iturmendin sartzen ziren. Santa Marina igotzen ziren. Baina Iturmendikoaren adar bat Bakaikun Mandabita bidetik sartu eta Galtzadamakurretik, Mandakamiotik eta Artasorotik (artatxikia, mijoa) Etxarrira jotzen zuen. Sakanara paraleloa den ibarra da, Urdiaindik Etxarriraino doana. Ameskoara joan nahi zutenek Iturmendiko galtzada hartzen zuten. Santa Marina azpian Iturmendi eta Urdiaingo galtzadek bat egiten dute. Baina Gesalaz eta Iruñera jo nahi bazuten Etxarriko Lazkozko portua igotzen zuten,

Zunbeltz aldera jotzeko.

#### Daturik bada?

1744an, eta ondoren bizpahiritan, mandazain kofradiek galtzadak konpontzeko harginak kontratatu zituzten. Arruazu eta Urdiain arteko udalerrietako mandazainek ordaindu zituzten konponketak. Zituzten mandoen arabera ordaintzen zuten. Iturmendiarrak ziren gehien ordaintzen zutenak, 84 mando zituzten. Langile asko izanen ziren jardueraren horren inguruan.

#### Lanean zer opatu duzue?

Bakaikun metro erdiko galtzada opatu dugu. Zaharra dela dirudi. Iturmendin, berriz, zaharberrituta

dago eta 2,10 eta 2,20 metroko zabalera du. Modernoagoa da. Hobe-kien dagoen zatia Ataunera jaisten dena da. Markesaren basoa zen eta ez da mendeetan ikutu. Erdi Arokoa izanen da ziurrenik. Aiako zubi batera ateratzen da.

#### Noiztik erabiltzen dira bide horiek?

Gure gurasoek bide horiei erromatar galtzadak deitzen zieten. Galtzada nagusiak, Sakana zeharkatzen zuten Bordele eta Astorga arteko esaterako, sei metroko zabalera ziren eta haiek, bai, erromatarrek ziren, gurdindako eginak. Baina gu azaleratzen ari garengaltzadak mandazainen ibilbideak ziren, ferra-galtzada izena dute, zaldiak eta, batez ere, mandoendako zirelako. Horretarako ez da bide handirik behar. Erdi Aroko bideak dira.

Baina hipotesiak egin daitezke: bide horiek historia aurrean ere erabiliak izan zitezkeen. Bai Santa Marinaran bai Bernoan trikuharrak daude. Erromatarrek gero sartu ziren. Baina haien galtzadak zabalagoak ziren eta legionarioek egiten zituzten.

#### Hipotesi gehiago?

Itsas aldetik Donejakue bidea egiten zuten erromesek Bernoako galtzada erabili zezaketen ez dago zehazterik, oraingo. Ezta, Oiasso (Irun) hiri erromatarra eta Bordele-Astorga galtzada lotura Sakanan egiten zenik. Hipotesiak baieztatu edo ezeztatzen dituen arkeologia lana egitea falta da.

#### Nolakoa da Bernoako galtzada?

Harri handiak bidearen ertzetan, harri xehea erdian eta toki batzuetan harriz egindako bizkarhezur moduko bat. Errekako harriekin egindakoak dira.

#### Non bukatzen zuten galtzadak?

Pasaian eta Gipuzkoako portuetan. Horregatik, lotu nahi izan dugu galtzada eta San Joan baleontziaren berreskurapena, mandazainek erabiltzen zuten ibilbidea zelako. Itsas portuetatik Ameriketatik ekarritakoa garraiatzen zuten. Hasiera batean, bale-olioa, bakailaoa eta halako zerbait ekarriko zuten. Euskaldunek monopolioa zuten. Gerora, kakaoa, tabakoa, zura... Lizarraldeko ardoa eta aleak eta bertako ikatza Gipuzkoara eramanen zituzten. Merkataritzarako bideak ongi egotea ezinbestekoa zen.

#### Zerk ekarri zuten galtzaden gain-behera?

Gure gurasoek mandazainen bat ezagutu izan dute, Ameskoarako bidean asko ibiltzen ziren. XIX. mendean Lizarrustiko portua zabaldu zen. Mende bereko bukaeran, trenarekin, merkataritza asko galdu zen. Gainera, mende horretan, etengabe gerran izan ziren. Jendearendako oso gogorra izan zen. Gerrek lapurretak ugaritzea ekarri zuten eta segurtasunik gabe ezin merkataritzan jardun.

#### Bernoarako bidean Dos Pelos Errekalde toponimoa dago. Zer esan nahi du?

Rafael Carasatorre Bidaurre to-

ponimoarekin harritu zen. Baze-kien ezizen hori zuen koronel bat zegoela, baina entziklopedietan Lizarran hila jartzen zuten (han atxilotu zuten). 1820an Kadizko konstituzioa ezarri zen. Fernando VII.aren aldeko errege-zaleak armak hartu eta gerra hasi zen 1822an. Sebastian Fernandez, Dos Pelos, konstituzioaren aldekoa zen. Independentzia gerran gerrillari izana zen. Nik Fernandez eta 120 soldaduen heriotza-agiria erakutsi nion Carasatorreri. Bakarren batek Etxarrira ihes egitea lortu zuen baina beste denak Iturmendiko basoan fusilatu zituzten. Carasatorrerekin balak opatu genituen. Posta puskek ziren, gorputzean zulo handia egiten zutenak. Hobi komuna opatzea faltako litzateke. Heriotza-agirian jasotzen denez udalak basoan bertan lur eman ziela jasotzen da.

#### Eta Erregeren gurutza toponimoa?

Fusilamendua izan zen tokia da. Herritarrek ez zekiten han errege bat edo koronel bat hil zuten. Han desagertua dagoen gurutze bat zegoen. Gertaerak herrian eragina izan zuen eta toponimoa Ibarbeltz izatetik Erregeren gurutza izatera pasa zen.

#### Galtzadak beste bitxikeriarik azaleratu du?

Gipuzkoan, Alegian, mandazain bat hil zen eta hil-agirian zehatz-mehatz haren Burundako janzkera azaltzen dute. Arropatik bakarrik Burundakoa zela zekiten. **+ Azken orriari.**



Lourdes Ganboa Gartzandia

astekoa

## «Zurgina zurgintzan, harginak hargintzan»

Gaurko hau, nire azken artikulutxo izango da. Esperientzia polita izan da, kuriosoanola Guai-xerako idatzi behar nuen gehienetan, nire haurtzaro-nerabeza-roa zetorkidan burura. Ziur aski, erabat Sakanan bizi izan naizen garaia delako. Bestalde, beti nahiko idatzi pertsonalak atera izan

zaizkit, uste dut.

Baina hau ez da nahikoa halako zutabea idazteko, kalitate gehiago behar dela uste dut, hala forman nola edukian, eta niri gero eta zailagoa egiten zitzaidan idaztea. Bestalde, komunikazio arazo teknikoak zirela eta, ezin izan nuen bidali artikulu pare bat. Hau

“seinale”-tako hartu nuen eta Alfredok garilerako idazteko esan zidanean, berehala hasi nintzen bilatzen “zapatero a tus zapatos” nola esango otezen euskaraz, horixe nahi bai nuen izenbururako.

Eta, hara non, Gotzon Garate-ren liburu batean esanahi hori duten 15 euskal atsotitz aurkitu

ditudan. Hona hemen horietako batzuk: “Arotza, ferratzera”; “Jostuna jostera, okina labera”; “Nere ta Ana, nor bere lana”; “Soinularia, dantzari gaixtoa”; “Txori bakoitza bere adarrera”... Beraz, argi dago nire asmoa, ezta?

Nire lagun argentinarra, Mary, agurtzen hasi nintzen, akorda-

tzen? Duela 100 urteko Sakanaz aritugero. Ondoren San Saastinen txanda izan zen eta azkenik, nire barruko udazkenari ezin agurra esan. Gaurkoa, berriz, agurra.

Ardura eta plazera izan da. Mila esker nire burutazioak irakurtzeko astia hartu duzuenendako. Ongi izan.

### barrutik kanpora

## Nafar Gobernuarekin negoziatzen

Iazko udazkenean Sakana 2020 Plan Estrategikoaren (SPE) sustatzaileak Nafarroako Legebiltzarreko talde guztiekin bildu ginen. Talde guztiek zoriondu eta babesa eman zioten Sakanan egindako lanari, aurretik Sakanako udaletan gertatu bezala. Urtarrilaren 13an Nafarroako Legebiltzarrak ahobatez onartutako ebazpenean Nafarroako

Gobernuari SPEko sustatzaileekin negoziatzean eskatu zitzaien, Plana diru eta baliabideez hornitzeko.

Bi bilera egin dira Lourdes Goincochea jarduneko kontseilariarekin. Berandu hasi ziren negoziazioak. Iazko udaran luzatu zitzaien Nafarroako Gobernuari biltzeko lehen eskaria eta urtarritik aurrera saiakerak biderka-

tu. Apirilaren 22an izan zen lehen bilera, ordea. Bertan SPEa laguntzeko Nafarroako Gobernuaren eta Sakanako Mankomunitatearen arteko Hitzarmenaren auzeraztertea eta proposamen zehatz eta kuantifikatu bat helaraztea adostu zen. Apirilaren 27an proposamen zehatza Sakanako Behatokian onartu zen eta segidan Nafarroako Gobernuari bidali.

Nafarroako Gobernuarekin bigarren bilera maiatzaren 21ean egin zen, hauteskundeak baino hiru egun lehenago. Bertan Lourdesek esan zuen proposaturiko Hitzarmena egingarria zela, bai edukiz, bai juridikoki, bai epeetan. Europar araudiari egokitzeko eta xehetasunak zehazteko prozedura onartu zen, aste gutxiren buruan Hitzarmena sinatzeko asmoz.

Hauteskundeak igaro eta isiltasuna iritsi zen Nafarroako Gobernutik. Ekainaren 12an iritsi zen erantzuna: ez zuten negoziatzen jarraituko. Orain esperantza guztiak osatzean dagoen Gobernu berriarekin ditugu. Ea egingarria zen Hitzarmena lehenbailehen gauzatu den, Sakanak horren premia du eta.

**Sakantzen Sarea**

### objektibo tik



#### Berde pixka bat:

Hotza denean, hotza delako. Beroa denean, beroa delako. Ezin gu konforme gelditu. Beroa beroaren atzetik egin du eta uztarako egokia izan da eguraldia. Hala ere, euri faltagatik guztia gorritzen hasi da. Ia berde pixka bat ikustea ez zaigun arraroa egiten.



#### Abaroan:

Hiztegiak dioenez, abaro: animaliak itzalean eguzkiarengandik babesean daudenean. Udako kal-dari aurre egiteko zer hobe itzala, edaria eta konpainia ona baino.

objektibo tik: gutunak@guaixe.eus

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano  
**ZUZENTZAILEA:** Garazi Garzia Mauleon  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800  
 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia  
 Salgado • argi@guaixe.eus  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**BAZKIDEAK** 

**Mank**  
 s a k a n a

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hezkuntza Politikako Salburuzordetza

**SANFERMINETAN DYAKO 12 BOLUNTARIO LANEAN:** Iruñeko festetan osasun zerbitzua eman duten erakundeen artean dago **DYA**. 12 sakandar aritu dira sanfer-

minetan lanean. Sakanako anbulantzia prestatuenerako bat denez, entziero garaian Iruñean zegoen. Mediku bat zuen eta UVI mugikor gisa erabili izan da.

# sakanerria >>

## SAKANA

### Gaztetxoak, haien gurasoak eta euskararekiko jarrera ikerketa gai

**Nafarroako Mendialdeko Euskara Zerbitzuek hura egiteko laguntza teknikoaren kontratazio deialdia egin dute. Lana aurten eta heldu den urtean egin beharko da.**

Iparraldeko Euskara Mankomunitateko, Baztango Udaleko, Bortzietako Euskara Mankomunitateko, Malerrekako Mankomunitateko eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuek ikerketa soziolinguistikoko bat egiteko laguntza tekniko kontratatuko deialdia egin dute. Haren bidez euskaraz zerbitzuetako hurrengo urteetako plangintzak behar bezala diseinatzeko beharrezkoa den informazioa lortu nahi da.

#### Ikerketaz

Bost Euskara Zerbitzuek, zehazki, Mendialdean gaztetxoaren artean euskararen egoera zein den aztertu nahi dute. Horretarako, 12 eta 16 urte bitarteko gazte eskolatu guztiei (DBHko ikasleak) inkestak egin beharko dizkiete. Euskararen etxeko erabilera, sare sozialak, hedabideak eta Internet eta bestelako galderak egin beharko zaizkie. Inkestak ikastetxeetan egin beharko dituzte. Ikerketak hartzen duen eremu guztiak 97

gelatan banatutako 1.835 ikasle dira. Haietatik 38 ikasgeletan dauden 728 gazte sakandar daude.

Azterketa kuantitatibo horrekin batera kualitatiboa ere egin beharko dute ikertzaileek. Hausnarketa bideratzeko dinamika parte-hartzaileak erabili beharko dituzten 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso euskaldun eta erdaldunekin. Dinamika horietan, besteak beste, jorratu beharrekoak dira: euskara (ez) transmitzea; euskara ez erabiltzeak edo erabiltzeak sorrarazten dizkien sentipenak edota non, norekin eta zertarako erabiltzen (ez) duten euskara.

#### Deialdiaren xehetasunak

Kontratuaren prezioa 16.400 eurokoa izanen da bi urterako, BEZ barne. Kopuru hori gainditzen duten proposamen ekonomikoak baztertuak izanen dira. Kontratuaren hartzaileak aurten 6.900 euro jasoko ditu eta gainontzeko 9.500 euroak heldu den urtean. Interesa dutenek euren proposamenak Sakanako Mankomunitateko Lakuntzako egoitzan irailaren 11ra arte aurkeztu ditzakete.



Gazte koadrila Etxarri Aranatzan. ARTXIBOA



Iturmendin, atzera ere, gas sarea zabaltzeko lanak egiten ari dira. ARTXIBOA

## Urte erdia langabezia jaisten

**Garagarrilean ere Sakanako langabeziak behera egin zuen eta 1.281 sakandar ziren enplegu bulegoan izena emandakoak, urte hasieran baino 358 gutxiago**

Garagarrila akaberan aurreko hilean baino 132 sakandar gutxiago zeuden Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda: 1.281. Duela urte bat 264 sakandar gehiago zeuden zerrenda horretan. Sakandarrak Nafarroako populazioaren %3,19 izanik ibarreko langabeak %2,99 dira. Zifrak aldatuta ere langabe gehienak emakumeak ziren: 736 (%57,46 eta aurreko hilean baino 74 gutxiago). Gizonezko langabeak, berriz, 545 ziren (%42,54 eta 54 gutxiago). Langabezia jaitsi ahala generoen arteko aldea handitu egiten da. Duela urte bat aldea 9 puntukoa zen, orain 15ekoa da.

Adinari dagokionez, langabe-enerdiak (%49,8) 45 urte edo gehiago dituzte: 638 dira, aurreko hilean baino 26 gutxiago. 25 eta 44 urte bitarteko langabeak %41, 53 dira, hau da, 532 (64 gutxiago). Azkenik, 25 urte baino gutxiagoko langabeak %8,67 dira, 111 gazte (42 gutxiago).

#### Sektoreka

Sakanako 10 langabetuetatik 6k zerbitzuetan lan egin nahiko luke. 760 dira (%59,33 eta 101 gutxiago). Industrian lan egiteko prest zeudenak 321 ziren (%25,06 eta 7 gutxiago). Eraikuntzarako lan eskatzaileak 77 ziren (%6,01 eta 12 gutxiago). Lehen sektorean aritzeko prest leudeke 32 sakandar (%2,5 eta 6 gutxiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez dutenen kopurua 91koa zen (%7,1 eta 6 gutxiago).

#### Kontratuak

Garagarzaroan sakandarrak 884 kontratu sinatu zituzten, aurreko hilean baino 278 gehiago. Gizonezkoek 486 sinatu zituzten (%54,98 eta 163 gehiago) eta emakumezkoek, berriz, 398 (%45,02 eta 115 gehiago). Gehien sinatutako kontratu mota aldi baterakoa izan zen: 852 (%96,38 eta 286 gehiago). Lehen egunetik kontratu mugagabearekin lanean hasi ziren sakandarrak 17 izan ziren (%1,92 eta 4 gehiago). Garagarzaroan mugagabe bihurtu ziren 15 sakandarren kontratuak (%1,7 eta 12 gutxiago).

Aurreko hilean kontratazioa-

ren motorea zerbitzuen arloa izan zen, 508 kontraturekin (%57,47 eta 205 kontratu gehiago). Kontratazioan nabarmendutako hurrengo sektorea industria izan zen, 347 sinadurarekin (%39,25 eta 68 gehiago). Eraikuntzarako kontratua 26 sakandarrek sinatu zuten garagarzaroan (%2,94 eta 6 gehiago). Lehen sektorean, azkenik, aurreko hilean 3 kontratu sinatu ziren (%0,34 eta 1 gutxiago). Nafarroan garagarzaroan sinatu ziren 32.422 kontratuetatik %2,73 sakandarrak ziren.

| Langabezia herrika |              |             |
|--------------------|--------------|-------------|
| Herria             | Langabetuak  | Aldea       |
| Arakil             | 34           | -1          |
| Iruztzun           | 134          | -31         |
| Irañeta            | 6            | -1          |
| Uharteko Arakil    | 42           | -12         |
| Arruazu            | 5            | 1           |
| Lakuntza           | 60           | -7          |
| Arbizu             | 60           | -3          |
| Ergoiena           | 8            | 0           |
| Etxarri Aranatz    | 130          | -4          |
| Bakaiku            | 9            | -6          |
| Iturmendi          | 19           | -1          |
| Urdiain            | 27           | 0           |
| Altsasu            | 633          | -56         |
| Olatzagutia        | 98           | -7          |
| Ziordia            | 16           | -4          |
| <b>Sakana</b>      | <b>1.281</b> | <b>-132</b> |

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Astehenetik ostiralera  
Eguneko menua  
8,25€

Asteburuetan  
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Ondo pasa udako festetan!

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
EDARI BANATZAILEA

Egizu topa!

Geltoki auzoa 11 • Altsasu  
948 467 317 • 696 979 279  
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Ogiaren artisauek

**PORTUKO**  
okindegia

Espelta ogia egiten dugu. Aurretik eskatu!

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

# FESTAK

## Irurtzun:



Erraldoi eta buruhandien konpartsak 23 lagun berri egin zituen herenegun; Petronilak jantzia mustu zuen egunean.

### >> Garilak 17, ostirala

**10:00etan** Dianak, trikitaliak.  
**10:00etan** Pilota. Irurtzun txikien pilota kluba.  
**11:30ean** Erraldoi eta Buruhandien konpartsa.  
**11:30ean** Herri joko eta jolasak helduendako, Foru plazan. Han eman izena.  
**12:30ean** RockKalean taldearen emanaldia.  
**14:00etan** Kalderete lehiaketaren epaia. Izen ematea 13:00etaraino, arkupeetan.  
**14:30ean** Kalderete bazkaria.  
**16:00etatik 20:00etara** Parkea: Kermese. Punteria eta trebetasun jolas klasikoak. Gernika plazan.  
**19:30ean** Kale antzerkia: Rico, rico, rico.

Gozo, gozo, gozoa. Salitre teatro. Foru plazan.  
**20:30ean** Dantzaldia Txo taldearekin.  
**22:00etan** Larrain dantza.  
**22:25ean** Zezensuzkoa eta buruhandiak, kultur etxean hasi eta Gernika parkean bukatu.  
**22:30etik 1:30era** Gau aktiboa: bideo jolasen festa, bideo-jolasak, wi kontsolak, play stationak, kinect dantza... Pilotalekua-plazan.  
**00:00etatik 4:00etara** Dantzaldia Txo taldearekin.

### >> Garilak 18, larunbata

**10:00etan** Dianak, akordeoilariak.  
**11:45ean** Pepa eta Kuko pailazoan

ikusizuna. Plazan.  
**13:00etan** Pantxo Balbuenarekin musika bermuta.  
**14:30ean** Jubilatuen bazkaria. Ondoren dantzaldia.  
**18:00etan** Herri kirol jaialdia. Koadrilen artean eta Sakanako harrijasotze eskola. Foru plazan.  
**18:30ean** Afizionatuen pilota jaialdia. Sarrera doan.  
**20:30ean** Abiba diskojaia.  
**22:00etan** Larrain dantza.  
**22:25ean** Zezensuzkoa eta buruhandiak, kultur etxean hasi eta Gernika parkean bukatu.  
**00:30etik 5:00etara** Abiba diskojaia.



Korrikaldi bat baino gehiago egin zuen.

### >> Garilak 19, igandea

**10:00etan** Dianak, gaita-jotzaileak.  
**11:15ean** Erraldoi eta buruhandien konpartsen elkarretaratzea: Obanos, Uharte Arakil, Berriogitoiko konpartsa txikia eta Irurtzun.  
**12:00etan** Meza.  
**14:00etan** Erraldoi eta buruhandien konpartsen agurra.  
**18:00etan** Irurtzungo dantzari txikien eskolaren emanaldia. Foru plazan.  
**18:30ean** Eskorga-kronoeskalada.  
**20:30ean** Alma Tapatia mariatxiaren ikusizuna.  
**22:00etan** Larrain dantza.  
**22:25ean** Zezensuzkoa eta buruhandiak,

## Barazki-gunea 2015

>> **Garilak 17, ostirala**  
**14:30ean** Gazteok ere kaldereteetara!  
**17:00etan** Irurtzungo batukada, txosnetatik hasita.  
**19:00etan** Karaokea barazki plazan.  
**23:30ean** kontzertuak: Hamaika Aldiz eta Kalera.

>> **Garilak 18, larunbata**  
**7:00etan** Kalejira musika-gurdiarekin.  
**17:00etan** Mus eta partxis txapelketak (izen ematea ordu erdi lehenagotik, bikoteko 5 €)  
**22:30ean** Herri afaria, plazan. Etzerat.  
**23:30ean** Kontzertuak: Denbora galduta, Sofokaos, eta Estu & Larri.

\*Hainbat garagardo mota dastatzeko aukera.

## Larrazpin

>> **Garilak 17, ostirala.**

**House, tech-house gaua**  
**23:00etatik aurrera** Aitor Lizarraga (Altsasu), Eder Pardo (Irurtzun), Iosu Garate (Lakuntza), Leo Silva (Agoitz), Txen (Altsasu) eta Xabi Abrego (Satrustegi).

>> **Garilak 18, larunbata.**

**Techno eta electro techno gaua**  
**21:00etatik aurrera** Adversario, Borsek, Dynamic Duo, Gordon, Oskatxo eta Wano.

kultur etxean hasi eta Gernika parkean bukatu.  
**22:45ean** Barrikotea: txistorra, urdaia, sagardoa...  
**23:00etan** Hau pena ni!  
**23:30ean** Alma Tapatia mariatxiaren ikusizuna.

## Iturmendi:



Maialen Aramendiak piztu zuen etxajua.

### >> Garilak 17, ostirala.

**Jubilatuen eguna.**  
**12:00etan** Meza, jubilatuen omenez.  
**13:00etan** Auzatea, jubilatuek antolatua. Altsasuko jubilatuek elkarteko abesbatzaren emanaldia.  
**14:00etan** Jubilatuen herri bazkaria Aritzaga elkartearen.  
**14:00etan** Kalderete eta mozorro lehiaketa, pilotalekuan.  
**18:00etan** Gazteen kalejira, Sakanaranga

txarangak alaitua. Jakiak bilduko dituzte (arroz, arrautzak...)  
**18:30ean** Bordetxe abere zirkoa.  
**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Areta Djekin.  
**00:00etatik 3:00etara** La Banda del jefe Bigun taldearen kontzertua.

### >> Garilak 18, larunbata.

**Santa Marina eguna.**  
**10:00etan** Baselizara abiatzea.  
**12:00etan** Meza baselizan. Erromeria



Etxajuaren ondoren Iturmendiko dantzariak saioa eskaini zuten.

herriko trikitaliarekin.  
**19:30ean** Askaria Sanpedroalden.  
**22:00etan** Herri afaria (bakailaoa).  
**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.  
**00:00etatik 3:00etara** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

### >> Garilak 19, igandea.

**Gazteen eguna.**  
**10:00etan** Txirindularitza proba (Burunda txirindulari elkarte).

**11:00etan** Meza.  
**18:30ean** Aizkolarien erakustaldia.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**22:30ean** Gazteen afaria, ostiralean bildutako janariarekin prestatua.  
**24:00etan** Festen azken traka.  
**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Sergio Djekin.  
**00:00etatik 3:00etara** Dantzaldia Sergio Djekin.

Oharra: egunero auzatea egongo da, eguerdian eta arratsaldean.

## Bakaiku:

### Santiago festak, bost egun aurretik

>> **Garilak 23, osteguna**

**17:00etan** Pilota partiduak Iturrarte pilotalekuan.  
Haurrak: Xanti-Ihnar vs Igor-Aingeru Kadeteak: Oier-Lazkoz vs Ian-Ganboa Seniorrak: Asier-Ion vs Pello-Adur  
**20:00etan** Etxajua herriko musikariez girotua, buruhandiak eta japoniar bonbak. Auzatea Bakaikuko Ehibitariaren eskutik.  
**22:00etan** Afaria. Etxean eta bizirik nahi ditugu.  
**00:00etan** Kontzertua: Alerta Gorria. Ondoren dantzaldia Ingo al deu taldearekin.

### Herri mugimenduaren egitaraua

>> **Garilak 23, osteguna.**

**Etzerat Eguna**  
**19:00etan** Plazako hagetan gure ikurrak jasoko dira. Ondoren, euskal preso eta iheslari politikoaren askatasunaren aldeko brindisa.  
**22:00etan** Afaria. Etxean eta bizirik nahi ditugu.  
**00:00etan** Kontzertua: Alerta Gorria. Ondoren dantzaldia Ingo al deu taldearekin.  
Jantzi euskal preso eta iheslariak Bakaikuko jaietara kamiseta.

**Antolatzaileak:** Bakaikuko Gazte Asanblada, Sare, Gure Esku Dago, Ezker Abertzalea.

## SAKANA

# Sakana birziklatzean, puntan

**Beira, ontzi arin eta paper eta kartoi bilketan estatuko onenetakoa den Nafarroako batz bestekoa gainditzen du**

Ecoembes enpresak emandako datuen arabera, Nafarroa beiraren birziklatzean 10 puntutan gainditu zuen Estatuko batez bestekoa, beirazko ontzien 24,4 kilo birziklatuz biztanleko (15.000 tona baino gehiago guztira). Balear Uharteak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren atzetik, Nafarroa hirugarren erkidegoa da beira birziklatzen. Sakanako Mankomunitateak martxoan jakinarazitako datuen arabera, sakandar bakoitzak 32,63 kilo beira birziklatzen zituen. Mank-etik azaldu zutenenez, iglu itxurako edukiontzietan jasotako beiraren kopurua %4,14 hazi zen joan zen urtean; guztira 669.200 kilo jaso ziren.

## Ontzi arinak

Enpresa berak jakinarazi zuenez, ontzi arinetan (plastikozko ontziak, latak eta brikak), 2014an, nafar bakoitzak 19,4 kilo sartu zuen batez



Mankomunitateko hondakin zerbitzuko langileak bilketa lanean. ARTXIBOA

beste edukiontzi horian. Sakanari dagokionez, sakandar bakoitzak birziklatutakoa 23,38 kilo ontzi arin izan ziren joan den urtean (479.525 kilo guztira). Mank-eko langileek 35.000 kilo gehiago jaso zituzten, bai

na ontzi arinak ez zirelako, birziklatzera eraman aurretik, Arbizuko hondakindegian kendu zituzten. Bildutako guztiaren %1,70 zen hori. Nafarroan edukiontzi horian gaizki sartutako hondakin-kopurua %

19,5 izan zen, aurreko urtean baino hiru puntu gutxiago eta Estatuko batez bestekoa baino hamar gutxiago. Nafarroa ontzi arinen birziklatzean estatuko buruan dago. Kartoizko eta paperezko

## Nora bota zer:

[www.sakana-mank.eus/hiri-hondakinak/donde-deposito-el-que](http://www.sakana-mank.eus/hiri-hondakinak/donde-deposito-el-que)

ontzietan dagokionez, 34,2 kilo utzi zituen nafar bakoitzak edukiontzi urdinean joan den urtean. Edukiontzi urdinetan gehien jasotzen zuen estatuko erkidegoa da Nafarroa. Mank-en datuen arabera, sakandar bakoitzak 48,98 kilo birziklatu genituen joan den urtean.

## Aparatu elektriko eta elektronikoak

2013ko aparatu elektriko eta elektronikoaren hondakin gaikako bilketak gora egin zuen Nafarroan; 3,82 kilotara heldu zen biztanleko eta urteko. Estatuko datua, 3,2koa da. Sakandarrek hondakin mota horren 3,14 kilo pertsonako birziklatu genituen joan den urtean, aurrekoarekin alderatuz %5,71 hazkunde izanik. Legeak jarritako helburua biztanle urteko 4 kilo dira.

## Mank-ek Jentilari buruzko inkesta egin du

**Sakandarrek irudiari zein erabilera emanen lioketen jakin nahi du ibarreko erakundeak**

S3DA, 3D animatika tailerrak Jentila pertsonaia oparitu zion Sakanako Mankomunitateari. Irudi hori Mank-ek orain arte behin bakarrik erabili du: alkateei udalako energia diagnosia aurkezpenean; jentilak diapositibetako azalpenak eman zizkien alkateei. Mank-en argi dute ibarrerako irudi bat behar dela, baina opari gisa jasotakoa sakandarrendako egozia den eta Jentilari zein erabilera emanen lioketen jakin nahi du.

Horregatik, bere [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus)-en inkesta jarri du. Hiru galdera ditu inkestak. Lehenik Jentilaren pertsonaiari buruzko

irritzia eskatzen du. Erabilera posibleez galdetzen du ondoren eta inkesta egin aurretik S3Dak egin dako irudia ezagutzen ote zuten galdetzen da azkenik. Horrekin batera, izena edo ezizena eta herria aipatzea eskatzen da.



## Mank-ek hondakin teknikaria kontratatatu du

**Deialdia aurten egin nahi du. Bestalde, 50 edukiontzi erosi ditu**

Sakanako Mankomunitateak batzarra egin du heldu den ostegunean. Aurreko legegintzaldiko batzarkideak atzeneko elkartzeko dira azken erabakiak hartzeko. Joan den urteko diru-kontuak ixtearekin batera, 50 edukiontzi erosteko diru-sailari oniritzia eman beharko diote. Azken hilabeteetan erreak izan diren edukiontziak ordezkatzeko dituzte. Erosketa horretara 15.000 euro bideratu ditu Mank-ek.

Plantilla organikoan ere aldatu onartuko dituzte batzarkideak. Hondakin teknikari lanpostua sortuko da eta bere egitekoa hondakin alor guztia kudeatzea izanen da. Orain arte Mank-ek hiru hezitzaile ditu.



Ostegunean agurtuko dira karguaz aurreko batzarkideak. ARTXIBOA

Egungo lehendakari Aitor Karasatorre Muguruzak esan digu oposizioa aurten deitu nahiko luketela. Bestalde, plantillan idazkari-kontu-hartzaile lanpostua sortu da eta Cristina Ziaurrirek bete du. Horrekin batera, irailetik Mank-en kudeaketa lana egin duen Nata-

## Mank berria

**Udal berriak osatuta, Mank-eko batzar berria iraila hasieran osatzea aurreikusten du Karasatorrek.**

lia Razkin administrari lanpostura bueltatu da.

## Arakil

### Arakilgo Eguneko bazkarirako txartelak salgai

Garilaren 25ean, larunbatarekin, ospatuko da Arakilgo Eguna. Itxas-perriko ermitan eta Etxarrenen ospatuko da. Herri bazkarian parte hartu nahi duenak ostegunera arte, hilaren 23ra arte, du udal txartelaren izena emateko epea. Arakilen erroldatutako hurrek 7 euro ordaindu beharko dituzte eta helduek 15. Ibarean erroldatuak ez daudenak, berriz, 12 edo 22.

**PPSOE,  
ETB  
digitala  
Nafarroan  
orain!**

**Berria erosi taldea**

**Kaixo**  
Kafetegia - Jatetxea

JATETXEA - RESTAURANTE - KAIKO - BAR-CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22  
948.46.91.24 ALTSASU  
[www.restaurantekaixo.com](http://www.restaurantekaixo.com)

**JAVIER ZELAIA**

**Pintura eta igeltsua  
Zaharberitzeak  
eta obra berria  
Barneko dekorazioa  
Aurrekontua eskatu  
konpromezurik gabe**

**648 143 615 - Altsasu**

**Vizu** 

**ileapaindegia**  
Nerea Vizuete Fernández

**Festak  
ongi  
pasa!**

Tel: 948 56 36 35  
Zirrikale, 5 • ITURMENDI

&gt;&gt; Etxarri Aranatz

## Gose greban Ijurkoren bakartze egoera salatzen

A Lamako (Galizia) espetxean preso dago Hodei Ijurko Iroz, "bizi baldintza murriztailea ezarria du" Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak jakinarazi duenez. Bakartua dago, gainontzeko euskal presoekin egoteko aukera izan gabe. Ijurkoren egoera salatzen eta beste euskal

presoekin jar dezaten eskatzeko espetxe berean dauden Ibai Aginaga eta Mikel San Sebastian gose greba mugagabeari ekin zioten astelehenean.

Mugimendutik gogorarazi duenez, "Hodeik preso daramatzen 7 urteetan egoerarik gogorrenak bizi izan ditu kartzelan". Isolamen-

du moduluetan eman du orain arteko espetxealdi gehiena. Hau da, 21 ordu ziegan eman ditu, patioa gehienez beste preso batekin aterata eta ziegan arropak eta besteak izateko murrizketa handiak ditu. Mugimenduak deituko diren mobilizazioetan parte hartzera deitu du.

### Epaiketa politikoen kontra, libre



Udazkenean Askapenaren eta Segurako sarekadetan abxilotutako kontrako auziak hasiko dira. Gainera, Ekin-en kontrakoetan auzipetuen ere garai horretan has daiteke. Epaiketa politikoak salatzen 24an 24 ordu Libre dinamika prestatu dute heldu den ostiralera, "askatasunaren, eskubide zibil eta politikoen aldeko lana nola indartu hausnartu eta zehazteko".

### SAKANA

## Enplegua hobetzen laguntzeko zerbitzua gurean

**Sakanako Enpresarien Elkarteak zerbitzu berria eskainiko du: Sakanan enplegua hobetzeko bitartekaritza eta orientazio zerbitzua**

Sakanako Enpresarien Elkarteak (SEE) langile bat kontratatu du enplegua hobetzeko bitartekaritza eta orientazio zerbitzua eskaintzeko. Ibarreko langabetuei eta euren lana hobetu nahi dutenei orientazio eta bitartekaritza zerbitzua eskaintzen die SEEk. Nafarroako Gobernuak emadako 9.062,12 euro diru-laguntzarkein egin du kontratazioa eta abendura arte bermatu du zerbitzua. Baliabideak izanez gero, harekin jarraitu nahi du.

### Enpresen eskaera eta langabetuen eskaintza bateratu

Zerbitzuaren helburu nagusia Sakanako bizilagunen enplegua hobetzea da. Horretarako orientazio eta bitartekaritza zerbitzua eskainiko du SEE-k; hara jotzen



Sakanako Enpresarien Elkarteak 2014 langabetuei zuzendutako 8 ikastaroetan 141 pertsona aritu ziren. ARTXIBOA

dutenen egoera aztertu eta lan merkatuan sartzea ahalbideratzeko, beti ere ibarraren ezaugarri sozioekonomikoak kontuan hartuta. Helburua garrantzitsua da SEE-erendako, Sakanak duen langabetasun tasa altua dela kontuan hartuta. Zerbitzuarekin, Sakanako

langabeak eta elkarteko enpresek dituzten enplegu eskaintzak bateratzen saiatuko da SEE, enpresen beharretara egokitzen diren langabeei prestakuntza ibilbideak eskainiz.

Izan ere, SEE bere enpresek dituzten beharren jakitun da, eta

lan bila dabilzan profil ezberdinetako pertsonen curriculumen datu base zabala dauka. Horretaz aparte, SEEko Giza Baliabideen arloak esperientzia zabala dauka langileen hautapen-prozesuetan. 2014an, esaterako, 40 bat egin zituzten.

### Harremanetarako

Arbizuko Utzugane gunera joedo  
948 468 307 telefonora hots egin

Zerbitzu berrian lehentasuna dute: 30 urtetik beherakoak, 50 urtetik gorakoak, emakumeak eta iraupen luzeko langabetuak. Banakako jarraipena egingen zaie, bakoitzaren arabera interesak eta lan aukerak aztertzen. Gainera, enprekin harremanetan jartzen saiatuko da zerbitzua, lan kontratazioak lortzeko asmoarekin.

### Prestakuntza

2009tik, enpresek eskatuta, langileen prestakuntza ari da SEE, oinarri garrantzitsua bilakatu delarik. 2014an antolatutako 40 ikastarotan 30 enpresa baino gehiagok eta 250 ikaslek hartu zuten parte.

### Altsasu



Ermitako bidean. FERNANDO SAYAS

### Erkudengo Amaren itzalera

Makina bat altsasuar elkartu ziren Ulaiarren, Erkudengo Ama ermitaren inguruan. Irudia elizatik erromerian ermitaraino eramanez, estalpean jarri eta, eguraldia lagun, meza kalean izan zen. Haren omenezko kantuarekin despeditu zen elizkizuna. Belen Rubio ermitauak banatutako gazta jan zuten batzuk, besteek eurek eramandako ogitartekoak. Haiek bulkatzen udalak 140 litro ardo banatu zituen, azkar asko agortu zirenak. Ospakizuna zortzikoak dantzatu eta elkarrekin egindako bazkariarekin despeditu zen.

**BARANDÍ TABERNA**  
MUSTUTZEA  
UZTAILAK 17 OSTIRALA  
19:00ETAN  
ZATOZ ETA GUREKIN OSPATU!  
SARRASATE ENPARANTZA 3 OLAZTI



## SAKANA

## Aralarko aingeruak lagun txiki berriak izanen ditu

**Igandean, 12:30eko meza nagusian, haurrak goiaingeruari aurkezteko ekitaldia egingen da. Edozein adineko haurrei zabalik dagoen ekitaldia da**

Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak hamabigarren aldiz haurrak Aralarko aingeruari aurkezteko ekitaldia antolatu du. Haurrek Aralarko santutegiarekin

lotura sustatzeko egiten da ekitaldia. Aingeruaren haurrendako bizi guztirako babesa eskatuko dute. Etzi izan eta aingeruaren irudia gurtu ondoren pergamino bana jasoko dute haurrek. Aurretik izena emandakoek bai jasoko dute. Gainontzekoek Aralarko santutegian izanen dute agorrilaren 2tik aurrera.



Haurrak Aralarko aingerua gurtuko dute igandean. ARTXIBOA

## Txartel freskagarriak lehen saria eman du

**Beleixeguaixe txartela erabiltzeagatik Peio Astizek honako saria irabazi du: Urdaingo Kaluxa jatetxean 2 lagunendako bazkaria; Altsasuko Gixane Estetika zentroan alaitasunaren peeling-a eta Artazako kanpinean 2 lagunendako gau baterako egonaldia eta Finlandia sesioa.**

**Hurrengo bi asteetan Beleixeguaixe txartela erabiltzen dutenen artean beste bi sari eder zozketatuko dira.**

Altsasuko Dantzaleku tabernan kontsumitu eta Beleixeguaixe txartela erakutsita, izen-abizenekin eta telefonoarekin papera bete zuen Peio Astizek. Horrela parte hartzen da Txartel Freskagarria kanpainan. Astizen modura Beleixeguaixe txartela duten beste 54 sakandarrek gauza bera egin dute. Zozketa egin eta saria Ihabarrera joan da. Hurrengo bi ostegunetan beste bi sari eder egingen dira eta Beleixeguaixe txartela dutenek papera betetzera animatzen zaituztegu.

## Sariak eta zozketa datak

**Garilak 23, osteguna**  
Arbizuko Olatzea jatetxean bi lagunendako bazkaria.

Lakuntzako Ederne ileapaindegi eta estetika zentroan makilaje sesioa.

Urbasa Abentura parkean bi lagunendako sarrerak.

**Garilak 30, osteguna**  
Altsasuko Iru Bide jatetxean bi lagunendako bazkaria.

Etzarriko Lizardi estetika zentroan aurpegiko lifting-a.

Urdaingo Errotainen 2 lagunendako zaldi ibilaldiak.

## Olatzagutia

### Egitarau feministaren segida

Garila Feminista egitarauak segida izanen du gaur Olatzagutian. Udaleko Berdintasuna Zerbitzuak prestatuta, hainbat jarduerak antolatu ditu hilabete honetarako. Gaur Altsasuko emakumezkoek kinto ospakizunean normaltasunez parte hartzeko izandako borroka islatzen duen dokumentala ikusteko aukera izanen: *Gonbidatu izatetik protagonista izatera*. Emanaldia Kultur etxean izanen da, 20:00etan, eta haren ondoren bildutako arteko iritzi trukea izanen da.

Afaldu ondoren, 22:30ean, kontzertuak izanen dira San Migel plazan. Nerea Loron, hau da, La Furiak kontzientzia feministarekin egindako rapa eskainiko du. *No hay clemencia* diskoa aurkeztuko du. Haren ondoren, Las Guindillas taldearen txanda izanen da. Aragoiko Piriniokoak dira eta bluesa, reggaea, ska, runba, rocka eta salsa uztartzen duten doinuak egiten dituzte. *Malabares*



La Furia raperoa.

*con la vida* disko laburra aurkezttera etorriko dira.

Garila Feministako egitaraua heldu den ostiralean despidituko da, festen hasierako egunean. Gazteendako txapa tailerra eta Emakumeen Mundu Martxako photocall-a egingen da. Egitaraua, bestalde, hilaren lauan abiatu zen autodefentsa tailerrarekin.

## Irurtzun

### Festetan emakumeen kontrako erasoak ekiditeko kanpaina indarrean

Oskia Ollakarizketa Orritz dantza taldeko kideak eta Aitor Lakuntza alkateak Irurtzango festei hasiera emateko txupinazotik bertatik hasita, sexu erasoek kontrako mezua presente dago Irurtzango festetan. *Erasorik gabeko festa, gozamen handiko festa* leloa zabaldu zuten.

Festetan emakumeen kontrako erasoak ekiditeko kanpaina Gizarte Zerbitzuen eta Irurtzango Udalen ekimena da. Joan den urtean egin zuten estreinakoz eta esperientzia positiboa izanzen. Hala ere, kanpainaren mezuak irurtzundarrei eta bisitariei errepikatzeari garrantzia eman diote. Alde bate-tik, festa giroan emakumezkoen eta gizonezkoen artean errespetua bultzatzea. Bestetik, gazteen artean ematen diren harremanak ber-



dintasunean oinarritzea. Eta, azkenik, argiegarri nabarmentzea festetan ematen diren gehiegizko kontsumoek ez dituztela inondik ere jarrera sexistak justifikatzen.

Udaletxeko balkoian *Ezetz ez da, festa errespetutik disfrutatu* leloa zuen pankarta zintzilik zegoen. Antzeko mezuak dituzten txapak, kartelak eta pegatinak herrian barna zabaldu dituzte.

## Etxarri Aranatz



### Udalak lehiaketa-oposizioa deitu du

**Euskara ezagupenak dituen arduradun eta zerbitzu anitzetako aldi baterako lanpostua sortuko da, etorkizunean behin behineko kontratazioak egiteko**

Denbora gutxian hiru langile jubilatu dira Etxarri Aranatzko Udalean eta hori dela eta deitu du lehiaketa-oposizioa. Zerbitzu anitza eta enkargatuaren aldi baterako lanpostua sortuko du udalak, etorkizunean behin behineko kontratazioak egiteko. C mailako lanpostua da sortuko dena. Lanaldi osoa izanen da eta zerbitzuaren beharretara egokituko da. Euskaraz jakitea nahitaezkoa da. Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denez 30 eguneko epea izanen da eskabideak udaletxean aurkezteko.

**DENAK**

# ESKAINITZAK

**KOTXEEN BARRUKO GARBIKETA**

**XURGATZEA ETA AGINTE -MAHAIA**

**30€TK**

**GURPILEN MUNTATZEA ETA OREKATZEA PREZIOAN BARNE**

|                |        |
|----------------|--------|
| 175-65-14..... | 57,50€ |
| 185-65-15..... | 60,00€ |
| 195-65-15..... | 60,50€ |
| 205-55-16..... | 68,50€ |
| 215-55-16..... | 80,00€ |
| 225-45-17..... | 75,00€ |

**PREZIO ETA MARKA GEHIAGO**

**f 948 564 013 · ISASIA INDUSTRIALDEA · ALTSASU**




GRUPO TANATORIO

# IRACHE

TANATORIO TALDEA

## 948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com



### Pedro Mari Irigoien Galarza

Eskerrak eman nahi dizkizuegu une latz hauetan gure ondoan egon zareten guztiei.

**Etxekuek**

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era edo hots egin**  
948 564 275 telefonora

## Oroigarriak



**Guaixe KOMUNIKAZIOA**  
948 564 275



GRUPO Funeraria **VASCONGADA** Ehorzketak TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**  
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

# guaixe.iragarkilaburrak.com

|                  |               |                 |
|------------------|---------------|-----------------|
| 1 HIGIEZINAK     | 4 DENETARIK   | 7 AISIA/KIROLA  |
| 2 TEKNOLOGIA     | 5 IBILGAILUAK | 8 FAMILIA/ETXEA |
| 3 LANA/NEGOZIOAK | 6 HARREMANAK  |                 |

### NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€.  
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.  
Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en.

### HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)

### Higiezinak LOKALAK

ERRENTAN EMAN

**Etxarri Aranazko Gure Ametsa Jubilatutako Elkarteak** taberna alokatzen da. Izen ematea uztailaren 22a baino lehen elkartean, Juntako kide bati eman edo 948 46 18 12 telefonora hots egin.

**Dorrauko jaietako bi taberna** alokatzen dira. Jaiak abuztuaren 13tik 16ra izanen dira. Interesatuak dei dezala 628 85 58 27 edo 637 33 13 47 telefonoetara uztailaren 30a baino lehen.

**Ihabarko Denon Kabia elkartea festetan alokatzen da.** Abuztuaren 28tik 30era. Interesatuak hots egin dezatela abuztuaren 14a baino lehen telefono honetara: 670 95 98 75.

---

### OPARITAKOAK

**Katakumeak.** Oparitzen ditugu. Tel: 661 52 04 04 - 948 46 72 48.

---

### Opatutakoak / galdutakoak

**OPATUTAKOAK**  
**Haur baten zapatila opatuta Altsasun.** Galdutakoak duenak hots egin dezala GUAIXEra, 948 56 42 75.

---

### Lehiaketa

**Argazki lehiaketa.** Nafarroako Landa Turismoko Federazioak Igo Argazki Lehiaketa antolatzen du Nafarroa bisitatzeko dutenei zuzenduta. Argazkiak e-mail bidez bidali daitezke [info@turismoruralnavarra.com](mailto:info@turismoruralnavarra.com) helbidera edo zuzenean [www.turismoruralnavarra.com](http://www.turismoruralnavarra.com) web orrialdera igo. Azken horretan dago lehiaketari buruzko informazio guztia.

---

### Oharra

**Haurrak Aralarko goiangeruari aurkeztu.**

Hilaren 19an izanen da Aralarko santutegian. Hilaren 12a baino lehen izena ematen duten haurrek ekitaldiaren ondoren pergaminoa jasoko dute. Ondoren izena ematen dutenek agorriaren 2tik aurrera jaso beharko dute santutegian.

**Odol-emaileak.** Hilaren 17an goizez Altsasun.

**Zozketa.** Saharako haurrak ekartzeko laguntza zenbakien zozketan, hauek aterata dira: 0833 -1130 - 3153 eta 2824.

**Bertso udalekuak.** Euskal Herriko osoko haur eta gazteek parte har dezakete bertso-udalekutan. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatzen ditu. Informazio guztia: <http://www.bertsozale.eus/eu/bertso-udalekuak>.

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia azterzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren zuzendaritza. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza) [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943- 32 22 94.

**3MBk kontu korrontea zabaldu du.** Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak

3008 0093 66 2460985811

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.** Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com](mailto:amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com) edo [amigososefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigososefinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure beleixeguaixetxatela.** 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

**Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

**Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda.** Sakanako produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarritako edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako denda (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztiak, arratzak, garga-ardoa, lekaleak, ozpina... Informazioarako: 656

711 130 (Gorka).

**Herialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makina; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehena eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoa.

**Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan.** Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzeko, asteartean Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [immigrazio@sakana-mank.com](mailto:immigrazio@sakana-mank.com) posta elektronikoz.

**Gazteendako sexualitate aholkularitza.** Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo [gazteria@altsasu.net](mailto:gazteria@altsasu.net) helbidea). Adina: 12-30 urte.

**Izan zaituzte Mintzakide!** Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, asteen behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informazioarako: 607 624 392 telefonoa, [sakana\\_mintza@aek.org](mailto:sakana_mintza@aek.org) e-posta edo

### JAIOTZAK

- Luar Mendiburu Zabaleta, uztailaren 4an Etxarri Aranatzeko.
- Nora Caballé Razkin, uztailaren 6an Etxarri Aranatzeko.
- Ariadne Goikoetxea Oiarzun, uztailaren 7an Altsasun.
- Irati Perez Martin, uztailaren 9an Altsasun.

---

### EZKONTZAK

- Jose Mari Zelaia Erdozia eta Hilda Altagracia Taveras Ventura, uztailaren 11n Bakaikun.

---

### HERIOTZAK

- Ildefonsa Ondarra Urriza bakaikuarra uztailaren 10ean Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

[sakanamintza.blogspot.com](http://sakanamintza.blogspot.com) ataria.

---

**Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu.** Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: [www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com) web gunean.

---

**Iparaldeko Ikastolak laguntzeko.** Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

## PILOTA

**PILOTA BAKAIKUN:** Ostegunean, uztaile-  
ren 23an hasiko dira Bakaikuko festak.  
17:00etan pilota partidak antolatu dituzte,

ondokoak: Haurrak: Xanti-Ihnar / Igor-  
Aingeru; kadeteak: Oier-Lazkoz / Ian-  
Ganboa; seniorrak: Asier-Ion / Pello-Adur.

## Kiroldedia

## Igerilekuko sorosle ikastaroa abuztuan Altsasun

Abuztuaren 17tik irailaren 4ra bitartean igerilekuko sorosle ikastaroa eskainiko da Altsasun, Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak antolatuta. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web gunean edo Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo [kirolak@sakana-mank.com](mailto:kirolak@sakana-mank.com)).

## Pilota

## San Ferminetatik esku hutsik

Joseba Ezkurdia eta Aitor Zubieta esku hutsik geratu ziren Sanferminetako Binakako Torneoan. Ligaxkako lehendabiziko partidaren 22-8 irabaziz Urrutikoetxeak eta Berroiek, eta bigarrenaren irujok eta Barriolak 12 tantotan utzi zituzten. Hortaz, ez ziren finalerako sailkatu. Aspe eta Asegarceren arteko Marco Real ardoaren desafioan Asegarcen gailendu zen, jokoan zeuden hiru partidetatik bi irabazi eta gero. Tartean Aitor Zubietari eta Retegi Biri 22-7 irabazi zieten Urrutikoetxeak eta Aretxabaletak. Hortaz, Marco Real upategietako 1.200 ardo botilak Asegarcen irabazi zituen.



## Aretu futbola

## Parkea martxan txapelketa bueltan

Sanferminetako asteburuan atsedean hartu eta gero, asteburu honetan Lakuntzako I. Parkea Martxan Txapelketako 3. jardunaldia jokatuko da. Une honetan sailkapenean, lehen multzoan Bandiduek, Los Suaves eta Karrotillo 2 taldeek hiru puntu dituzte eta Biltoki neskek, aldiz, ezta bat. Bigarren multzoan Kaimanak FC eta Burutik jota taldeek seina puntu dituzte eta Karrotillo 1-ek eta Sikomotronikek ez dute punturik bildu.

## Asteburuko partidak

## Larunbatean

**19:00etan:** Los Suaves / Bandiduek

**19:55ean:** Burutik jota / Kaimanak

**20:50ean:** Biltoki neskek / Karrotillo 2

## Igandean

**20:00etan:** Karrotillo 1 / Sikomotronik

## Aizkora, trontza, herri kirolak

## Sanferminek utzi dutena

**Nazabal-Kañamare hirugarrenak binakako aizkora txapelketan, Beltza Nafarroako II. mailako finalera sailkatuta eta Agirre III. mailakora**

Igandean jokatu zen Nafarroako Bikotekako Aizkora Txapelketa, Iruñeako Foru plazan. Azkenaldian txapelketetatik kanpo egon ondoren, Floren Nazabal txapeldun handia atzera ere lehian ikusteko aukera egon zen. Etxarriarrak Julen Kañamaresekin osatu zuen bikoa eta Jon Rekondo-Ruben Saralegi eta Ander Erasun-Donato Larretxea izan zituzten arerio. Bikote bakoitzak sei kanaerdiko eta sei 60 ontzako erdibitu behar izan zituen eta txapeldunak Jon Rekondo eta Ruben Saralegi izan ziren (22:12), Ander Erasun eta Donato Larretxearen 22 segundo aterata. Nazabal eta Kañamare hirugarrenak izan ziren (24:34).

## Goizeder Beltza Nafarroako II. mailako final handira

Ostiralean Nafarroako II. mailako Aizkora kanporaketa jokatu zen. 11 aizkolari lehiatu ziren, hiru sakandar tartean: Goizeder Beltza eta Juan Jose Erdozia etxarriarrak eta Iban Resano dorrobarrak. Haiekin batera Manolo Kañamare, Aitor Senosiain, Asier Pellejero, Eneko Saralegi, Jesus Etxeberria, Xabier Mindegia, Migel Angel Etxeberria eta Mikel Indakoetxealehiatu ziren. Guztiek bi kanaerdiko eta 60 ontzako bat



Beltza, Erdozia eta Nazabal sanferminetako herri kirol jaialdian aritu ziren.

erdibitu zituzten.

Asier Pellejero izan zen azkarrena (7:44), Aitor Senosiain (7:55), Manuel Kañamare (8:24), Eneko Saralegi (8:44) eta Goizeder Beltza (8:57) aizkolarien aurretik. Lehendabiziko bost aizkolari hauek lortu zuten final handirako sailkatzea. Iban Resano 6.a izan zen (9:03) eta Juanjo Erdozia 7.a (9:21), eta finaletik kanpo geratu ziren, Mikel Indakotxea, Xabier Mindegia, Migel Angel Etxeberria eta Jesus Etxeberriarekin batera.

## Iosu Agirre III. mailako Txapelketako finalerako sailkatu da

Sanferminetako herri kirol jaialdian barruan, astelenean Nafarroako III. mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa hartu zuen Foru Plazak. 8 aizkolari lehiatu ziren, tartean bi sakandar: Iosu Agirre arbizuarrak eta Abel Uria olaztiarrak. Bi kanaerdiko erdibitu behar izan zituzten. Oier Kañamare izan zuen azkarrena (4:46), Joxean Etxeberria (5:41), Jon Telletxea (6:05), Iosu Agirre (6:34) eta

## Kadeteen trontzan Iñigo Aritzako Jon Aranburu eta Unai Irigoien hirugarrenak

Aurreko ostiralean kadeteen mailako Trontza Txapelketa jokatu zen. Enborrari 10 epai egin behar izan zizkieten parte hartu zuten 8 bikoteak. Azkarrenak Basaburuko Antton Irigoien eta Iker Aleman izan ziren (6:24), Berriozarko Julen Mailharin eta Unai Rodriguezen aurretik (6:26). Hirugarrenak Iñigo Aritzako Jon Aranburu eta Unai Irigoien izan ziren (7:15). Andra Mariko Asier Jaka eta Urtzi Nazabal laugarrenak sailkatu ziren (7:56) eta Andra Mariko Mattin Petrieta eta Ander Lakuntza bosgarrenak (8:15).

Moises Gogorza (8:11) aizkolarien aurretik. Lehendabiziko bost sailkatu hauek agorrilaren 15ean Ezkurran jokatuko den final handirako sailkatu ziren. Abel Uria olaztiarra sailkatzeko zorian egon zen, seigarrena sailkatu baitzen (8:48). Esteban Pikabeak (9:16) eta Koldo Garciak (12:07) itxi zuten sailkapena.

Bestalde, Sanferminetako azken egunean Izurdiagako Mikel Lasartek motozerrarekin erakustaldia egin zuen, figura eta irudi ezberdinak sortuz.

## Mendia

## Mendigoizaleak igandean Bargagainera

**Igandean LV. Bargagaingo igoera antolatu du Altsasuko Mendigoizaleak Klubak**

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak igandean LV. Bargagaingo Igoera antolatu du. Klubak, mendigoizaleak bertara joateko gonbita egin du, igoera, aldi berean, XLV. Mendi finalista izango baita.

Igandean, goizeko 9:00etan jaurtikiko dute suziria, Bargagainera abiatzeko. 9:30ean hamarretakoa egingo dute gazteluan, eta behin Bargagainera igota, goizeko 11:00etan meza izanen da. Ondoren, eguerdian, auzatean bilduko dira finalista guztiak eta mendi ibilbidera batuko zaizkien guztiak. Denboraldian egindako mendi igoeren errepaso egingen dute mendigoizaleek, eta oroigarriak jasoko dituzte. Jakina, Altsasuko erromeria guztietan bezala, ez da zortzikorik faltako. 13:30ean eta txoko guztiak garbi-garbi utzi ondoren, Altsasura jaitziko dira.



Bargagaingo igoerak bere txokoa du altsasuarren bihotzean. Aurreko urtean, esaterako, 300 pertsona inguru bildu ziren Bargagainen. Udalak 45 litro ardo jarri zituen, zilarrezko katiluetan dastatu ahal izan zirenak, eta Cruz Mari Martinezen txistu doinuei jarraiki zortzikoa dantzatzera animatu ziren asko.

## Irurtzundarrak Ozara

Astearte goizean Ozako oihanera mendi irteera antolatu du Irurtzundo Iratxo mendi taldeak.

## Txirrindularitza



## Tourra jarraitzen

Egunotan Tourra Pirinioetan ibili da eta sakandar ugari bildu da bertan mendiko etapa ikusgarriak zuzenean jarraitzera. Pirinioetan ikuskizuna espero zen, baina ez Chris Froome liderrak asteartean eskainitakoaren tamainakoa. San Martin Harrian despeditzen zen etapan oso urrutitik jo zuen eraso gogorra Froomek, 6,5 kilometroren faltan, eta jota utzi zituen aurkari guztiak, zale guztiak harrituta utzi zituen igoera ikusgarrian. 1.04 minutura helmugaratu zen Nairo Quintana (Movistar), 2.51ra Alberto Contador eta 4.25era Vincenzo Nibali. Froome

bera harrituta zegoen lortutakoarekin. Movistarreko Hiriberriko Imanol Erbiti 123.a sartu zen, 21:34ra. Asteazkeneko etapak, Tourmalet tarteko, ez zuen aldatarik ekarri.

Sailkapen orokorrean Chris Froome daliderra, 2:52ra Tejay van Garderen (BMC) eta 3.09ra Nairo Quintana (Movistar) dituela. Imanol Erviti 159.a da, 1:33:43ra. Atzo Pirinioetako azken etapa jokatu zen, lehen mailako col de la Core eta Port de Lers ondoren kategoria bereziko Plateau de Beillen despeditzen zena. Guaixe isterakoan ez genuen emaitzen berririk.

## Txirrindularitza

# Etxeberria, Lasa eta Aramendia Nafarroako selekzioarekin Lorcan

**Maialen Aramendiak Espainiako brontzezko domina lortu zuen emakumezkoen erlojupekoan**

Asteburuan Espainiako Kadete Mailako Txirrindularitza Txapelketa jokatu da Lorcan (Murcia). 500 txirrindulari lehiatu dira, 18 selekzioetan banatuta. Nafarroako selekzioarekin aritu dira Burunda klubeko Josu Etxeberria eta Ailetz Lasa eta CAF taldeko Maialen Aramendia.

Gizonezkoetan, taldekako erlojupekoan 12.a sailkatu zen Nafarroa. Bestalde, lineako lasterketan fin ibili ziren sakandarrak. Josu Etxeberria ihes eginda egon zen, baina 20 kilometroren faltan harriapatu zuen tropelak. Ivan Cobokantabriarra izan zen garailea (1:28:58), eta segundo batera sartu zen tropel nagusia. Tartean zeuden Josu Etxeberria, 12. postuan, eta Ailetz Lasa 17. postuan.

## Brontzezko Aramendia

Emakumezkoen erlojupekoan (7,5



Burundatik Lasak eta Etxeberriak hartu zuten parte Espainiako txapelketan.

km) Gaztela Leongo Isabel Martin izan zen txapelduna (11:29), Salomé Mazuela andaluziarrari 3 segundo eta Maialen Aramendiarri 5 segundo aterata. Brontzezko domina jantzi zuen Maialenek. Lineako lasterketan podiumera igotzeko zorian egon zen iturmendiarra. Proba esprintean erabaki zen eta Valentziako Alba Gomez nagusitu zitzaion Gaztela Leongo Isabel Martini eta Euskadiko Dolo-

res Gomezi. Maialen Aramendia laugarrena izan zen.

## Beste probak

Fontellaseko kadete mailako lasterketan Quesos Albeniz taldeko Hodei Zia hirugarrena iritsi zen helmugara eta tarteko helmugan sailkapena irabazi zuen. Juniorrek, berriz, Zornotzan izan zuten proba. Quesos Albenizeko Eneko Aramendia 9.a iritsi zen helmugara. Eta Zaragozako Juan Albertok Aragoiko txapelketan zilarrezko domina irabazi zuen.

## Txirrindulari txikiaren lasterketa Iturmendin

**Eskolako kategoriako lasterketa jokatu da igandean, 10:00etan**

Iturmendiko festetan ohi duenez, Burunda Txirrindularitza Klubak antolatuta, igandean, 10:00etan, eskolen txirrindularitza lasterketa jokatu da. Promesak, hasi berriak, kimuak eta haurrak lehiatu dira. Tartean, jakina, Burunda eta Aralar Txirrindularitza Klub sakandarreko gaztetxoak igoko dira bizikletara.

Antolakuntzak 1,5 km-ko zirkuitua prestatu du. Promesek itzuli bat eman beharko diote, hasiberrien lehen urtekoek itzuli bat, hasiberrien bigarren urtekoek 2 itzuli, kimuen lehen urtekoek 3 itzuli, kimuen bigarren urtekoek 4 itzuli, haurren lehen urtekoek 8 itzuli eta haurren bigarren urtekoek 10 itzuli.

gara. Eta Zaragozako Juan Albertok Aragoiko txapelketan zilarrezko domina irabazi zuen.

## Waterpolo



## Asteartean waterpolo Lakuntzan

**Mank-ek antolatuta, garilaren 22an, 17:00etan, Lakuntzako igerilekuan**

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Lakuntzako Udalaren laguntzarekin, waterpolo txapelketa antolatu du asteartean, garilaren 22an, Lakuntzako igerilekuan. Aipatu txapelketa udako kanpainaren barruan antolatu du Mank-ek, eta 17:00etan hasiko da. Kimuek, haurrek eta kadete jubenilek hartu ahaliko dute parte. Herri desberdinetako eta adin desberdinetako neska-mutikoak nahasi egingo dira taldeak sortzerakoan, ahalik eta talde orekatuenak sortuz. Eta waterpoloaz gozatu ongi pasatzea izango da jardunaldiaren helburua. Aurreko urtean Altsasuko Dantzaleku igerilekuan antolatu zen jardura eta 35 neska-mutiko lehiatu ziren. Izena emateko herrietako igeriketa monitoreari esan beharko zaio edo Mank-eko kirol zerbitzuan izena eman behar da (948 464 866, kirolak@sakana-mank.com).

## Herri kirolak

## Irurtzungo eta Iturmendiko festetako eskaintza

Irurtzungo festetanez dira herri kirol faltako. Larunbatean, 18:00etan, koadrilen arteko herri kirol jaialdia antolatu dute Foru plazan. Tartean, Sakanako harrijasotze eskolakoek harrijasotze erakustaldia egingen dute. Segidan, 18:30ean, afizionatuen mailako pilota jaialdia hasiko da. Bestalde, Iturmendiko festetan txokoa egingo diote aizkorari. Igandean, 18:30ean, aizkora erakustaldia antolatu dute plazan.

## Txirrindularitza

## Azkarate bosgarrena eta Lastra seigarrena Antzuolan

**Baqueko Alvaro Trueba gailendu zen esprintean**

Igandean Antzuola Saria jokatu zen, Lehendakari Txapelketarako baliagarria. 130 kilometroko afizionatuen mailako proba gogorra izan zen, Deskarga eta Asentzio portuak tartean. Eguneko ihesaldia helmugara iritsi baino lehen irentsi zuen tropelak eta esprint estuan Baqué taldeko Alvaro Trueba gailendu zen (2:54:37). Rural Kutxa talde sakandarreko Iker Azkarate, Jonathan Lastra eta Josu Zabala 5.a, 6.a eta 9.a izan ziren, denbora berean.

## Mendi lasterketa

# Korrikalari sakandarrak puntan

**Pelaezek Ehunmilak osatu zuen (168 km) eta Maiza eta Munarriz 18.a eta 19.a izan ziren Goierriko 2 Handietan (88 km)**

Asteburuan jokatu dira, Beasainen, VI. Euskal Herriko Ehunmilak ultratraila (168 km), Goierriko 2 Haundiak traila (88 km) eta Marimurumendi Maratoia (42 km). Ehunmilak ultratrail gogorrean besteak beste Izazpi, Hirukurutzeta, Erlo, Ernio, Txindoki, Ganbo, Aizkorri, Andraitz eta Lierni gainditu behar izan zituzten, 11.000 metroko desnibelarekin. 157 korrikalarik osatu zuten proba, Imanol Aleson azkoitiarra (24:11:29) eta Jaione Sasieta (32:27:54) buru zirela. Jone Pelaez altsasuarra 122. izan zen helmugan, proba burutzeko ia 41 orduan lanean egon eta gero

(40:41:21). Emakumeetan seigarrena sailkatu zen altsasuarra.

Aldiz, 364 korrikalarik osatu zuten Goierriko 2 Handiak proba (88 km). Lazkaomendi, Txindoki, Ganbo, Aizkorri, Andraitz eta Lierni gainditu zituzten. Azkarrenak Iokin Garai oñatiarra (10:12:50) eta Silvia Trigueros abadiñarra (12:15:34) izan ziren. Joxeja Maiza eta Aritz Munarriz etxarriarrak batera iritsi ziren helmugara, 18. eta 19. postuetan, biak denbora berean (12:12:22). Xabier Bergera 109.a izan zen (14:57:41), Sergio Goñi 154.a (16:03:44), Aitor Salinas 186.a (16:32:17) eta Oihan Mendinueta 210.a (16:57:30). Marimurumendi maratoiko helmugan ez zen sakandarririk iritsi.



Joxeja Maiza eta Aritz Munarriz Goierriko 2 Handietan. INA OLAIZOLA

## Disko jaurtiketa



June Kintana finaleko jaurtiketa egin eta gero.

# June Kintana hamabigarrena Europako 23 urtez azpikoan

**Estoniako Tallinnen jokatu da txapelketa**

Estoniako Tallinnen jokatu da 23 urtez azpiko Europako Atletismo Txapelketa. Espainiako selekzioarekin 22 gizon eta 20 emakume lehiatu dira, tartean 4 nafar. Pamploña Atlético taldeko June Kintana bakaikuarra disko jaurtiketan aritu da. Larunbateko sailkapeneko probatan hiru jaurtiketa egin zituen bakaikuarrak eta 9. postuan

sailkatu zen, final handirako txartela lortuz, baliogabeko jaurtiketa bat, 50,93 metroko beste bat eta 48,52 metroko hirugarrena egin eta gero. Igandeko final handian, aldiz, ez zen horren fin ibili Kintana eta 12.a sailkatu zen (47,82 m). Nonbait lesio batetik aterata berri da June eta horrengatik ezin izan du denboraldiko bere erregistro onenera (52,50 m) edo bere errekor pertsonalera (55,66 m) gerturatu ahal izan.

## Triatloia

# Sakanako XIV. Haur Triatloia bihar Urdiainen



Urriztiko, San Pedroko eta Sarabeko paraje ederretan barna ibiliko dira.

## Urdiaingo igerilekuetan jokatu da, 10:30etik aurrera, larunbatearekin

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, hainbat erakundeen laguntzarekin -Sakanako Triatloi Taldea, Urdiaingo Aitziberelkartea, Urdiaingo Udala eta Nafarroako Triatloi Federazioa- Sakanako XIV. Haur Triatloia antolatu du biharko, garilaren 18an, larunbatean, Urdiaingo igerilekuetan. Goizeko 10:30etik aurrera, triatloi proba politz gozatzeko aukera izango da Urriztiko eta San Pedroko paraje ederretan. Aipatu probak Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak dira.

## 100 triatleta pasa

Ondoko kategoriendako probak jokatu dira: aurre-benjaminak,

benjaminak, kimuak, haurrak, kadeteak eta juniorrak. Aurten aldaketa izango da eta lehendabizi nagusienak hasiko dira lehian, juniorrak eta kadeteak; orain arte beti aurrebenjaminak hasten ziren lehenengo, baina aurten txikienen probak beranduago izango dira.

Sakanako XIV. Haur Triatloian parte hartzeko aurretik izena emana beharra zegoen [www.navarratriatlon.com](http://www.navarratriatlon.com) web gunean eta atzo, ostegunean, bukatu zen epea. Erredakzioa xterakoan 107 triatleta inguru zeuden izena emanda. Nolanahi ere, informaziorako Mankomunitateko Kirol Zerbitzura hots egin daiteke (948 464 866 telefonoa). Aurreko urtean 100 triatletek har-

## Proben distantziak

**Juniorrak (96-97):** 10:30ean (336 m igeri, 9 km bizikleta, 2 km korrika)

**Kadeteak (98-00):** 10:30ean (336 m igeri, 9 km bizikleta, 2 km korrika)

**Haurrak (01-02):** 11:45ean (224 m igeri, 6 km bizikleta, 1 km korrika)

**Kimuak (03-04):** 12:30ean (112 m igeri, 3 km bizikleta, 500 m korrika)

**Benjaminak (05-06):** 13:15ean (54 m igeri, 1,5 km bizikleta, 300 m korrika)

**Aurre-benjaminak (07-11):** 10:30ean (12,5 m igeri, 1 km bizikleta, 200 m korrika)

tu zuten parte. Tartean izanen dira Udako Triatloi Campusean dabilzan sakandarrak.

Igeriketa probak Urdiaingo igerilekuan jokatu dira, eta bizikleta probarako zirkuitu ederra prestatu dute Urdiaingo igerilekuetako bidetik abiatu eta Sarabe parajearen barna. Korrika egiteko ere zirkuitua antolatu dute igerilekuetatik gertu. Triatletek derri gorrezkoa izanen dute kaskoa eta mendiko bizikleta erabiltzea. Proba gauzatzen den bitartean ibilbidea zaindua, markatua eta trafiki-

## 23 neska-mutiko triatloi campusean



Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Sakana Triatloi Taldearen eta Atabo S.L.-ren laguntzarekin 8 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoko triatloi campusa antolatu du. Campusa astelehenean hasi zen eta garilaren 24rabitartean gauzatuko da, Altsasuko Zelandi kiroldegian, goizeko 11:00etatik 13:00etara. Aitor Mozo eta Urko Berdud dira triatloi campuseko begiraleak. Triatloi atletismoa, igeriketa eta txirrindularitza biltzen ditu, eta aipatu kirolaren teoria eta praktika lan-

duko dute. Zelandi kiroldegian egingo dituzte igeriketa saioak eta Dantzaleku parajearen inguruan bizikleta eta atletismo tartearak.

Triatloi campuseko partaideak: Xabier Borrega, Leire Maiza, Oihane Lakuntza, Hegoi Lakuntza, Unai Villalobos, Oier Berastegi, Ane Gil, Ekain Alegre, Iker Mintegi, Euker Perez, Ibai Perez, Alain Razkin, Ainhoa Etxaiz, Owen Berdote, Pablo Senosiain, Nahia Imaz, Ekain Imaz, Saioa Iraizoz, Aitziber Etxeberria, Iker Begiristain, Jon Aierbe, Aitziber Aguirre eta Alex Ureña.

koari itxita egonen da.

Proba bukatzerakoan triatleta

guztiei ogitartekoa eta zukua banatuko zaie.

## Futbola

# Futbol campus arrakastatsua

Sakanako Mankomunitateak antolatutako udako futbol campusak sekulako erantzuna izan du. Aurreko urtean Uharteko Arakilgo futbol zelaian eskaini zen campusa eta guztira 39 neska-mutikok parte hartu zuten. Aurten Altsasuko Dantzaleku futbol zelaian gauzatuko da campusa eta zenbakiak potoloak dira. Aste honetako lehendabiziko txandan 47 gaztetxo trebatuko dira futboleant, eta hurrengo astean, aldiz, 30 inguru.

Aste honetan 2003tik 2005era bitartean jaiotako neska-mutikok dabilza lanean, 47 guztira. Hori

dela eta, hiru monitore dituzte Peio Goikoetxea, Iokin Lobo eta Jon Lapuente. Goizeko 9:30etik 14:00etara aritzen dira futboleant trebatzen, teknika eta praktika uztartuz. Bukatzerakoan bainua hartzen dute Dantzalekuko igerilekuetan.

## Errealak

Asteazkenean Errealeko instalazioak ezagutzera joan ziren. Ano eta ezagutu zuten, Errealeko museoa bisitatu zuten, Zubietan entrenatu eta bazkaldu eta arratsaldean hondartzara joan ziren.



## Lehen txandako partaideak



Oier Gastesi, Jose Luis Martin, Angel Bergara, Iker Ramos, Gaizka Martin, Unai Irigoien, Udane Vergara, Maider Granizo, Aimar Lezea, Aimar Lopez de Goikoetxea, Igor Aldasoro, Enaitz Cortes, Jon Chamorro, Endika Saez, Hegoi Legarra, Unai Manero, Unai Calvo, Jon Lopez-Goikoetxea, Jon Perez, Julen Flores, Mikel Etxaiz, Asier Somocurcio, Mario Lopez de Uralde, Jokin Senar, Jon Pleisoneau, Julen Tejedor, Mikel Rodriguez, Unai Rodriguez, Aitor Gasanz, Aitor Augusto, Aingeru Goikoetxea, Oihan Etxeberria, Asier Etxeberria, Jon Cano, Joanes Mendia, Eki Olabide, Inhar Olabide, Aratz Marquez, Jon Lopez de Goikoetxea, Igor Barriola, Jon Conejero, Axio Imaz, Alejandro Silvestre, Patxi Bergera, Jon Navarro, Aritz Sevilla eta Nerea Arellano.

**NEREA**  
ILEAPAINDEGIA

**NEREA BAKAIKOA**  
Ermiñeta kalea 4 - 948 567 331  
LAKUNTZA

Berezitasunak:  
ODOLKIAK, SALTXTXAK,  
BETEGARRIAK, TXISTORRAK  
eta ETXERO FRITOA

Jai zortentzuenak  
pastel

**T. IRIARTE**  
harategi eta urdaitegia

Lizarrakalea 8 - 948 50 00 87  
IRURTZUN

**NEUMATICOS**  
**IRADI**

Aurreztu zure denbora!

**Zerbitzu osoa**  
nahi duzun lekuan

619 882 181  
neumaticosiradi@gmail.com

## Akordeoi campusa bi astez



**Hauspo Alai elkarteak antolatuta astelehenean abiatuko da akordeoi campusa. Aurreneko astean gaztetxoak ariko dira instrumentuarekin trebatzen eta bigarren astean helduak Alexey Artemyev irakaslearekin**

Joan den urtean estreinakoz antolatu zuen Hauspo Alai elkarteak akordeoi uda-ikastaroa. Maria Arizale-  
tak esan digunez, esperientzia ona izan zen eta errepikatzea erabaki dute. Hala, Altsasuko Otadiako Kristo Deuna aterpea akordeoian trebatzeko gunere bihurtuko dute hurrengo bi asteetan.

Uda-ikastaroetako lehen ikasleak igande iluntzerako Altsasun izanen dira. 8 eta 13 urte bitarteko 11 haur dira Murtzia, Bilbo eta Nafarroatik etorritakoak. Campusaren aurreneko astean haiek izanen dira akordeoia jotzen trebatuko direnak. Hauspo Alaiko Arizaleta eta Inma Canovas irakasleekin goizero 45 minutuko bakarkako klaseak izanen dituzte. Ondoren bakarka praktikatzeko

ko tartea izanen dute eta goiza Leire Telletxea akordeoilari eta begiralearekin egindako jarduerekin osatuko dute.

Bazkaldu ondoren, ordu batez, talde guztiak elkarrekin piezaren bat prestatuko du. Eta mailaren arabera osatutako talde txikiagoetan ere ariko dira. Prestatutako pieza horiek campus akaberako emanaldian, heldu den ostiralean, aterpean bertan emanen duten kontzertuan eskainiko dituzte. Arratsalde guztietan aisialdi ekin-tzak izanen dituzte.

### Bigarren astea

Alexey Artemyev irakasle errusiarrarekin akordeoia jotzen trebatuko dira Errusia, Murtzia, Bilbo, Tolosa eta Nafarroako ikasleak. Arizaletak esan digunez, "ikasle errusiarrak hemen akordioarekin nola lan egiten den ikasi eta hango lan modua irakastera datoz". Hilaren 26tik 31ra ariko dira ikasle helduak.

Gazteen modura, Artemyev-ekin bakarka klaseak izanen dituz-

### Hauspo Alai

Akordeoiaren bi zaletuk osatu dute elkarteak: Inma Canovasek eta Maria Arizaletak. Akordeoi ikasle eta irakasleak dira. Ikasturtean barna ikasitakoari udan segida emateko gabezia sumatu zutelako antolatu dute uda-ikastaroa. Eta beste irakasle batzuekin ikasteko aukera izateko. Aldi berean, campusa beste toki batzuetako akordeoilariak ezagutzeko aukera ere bada.

te. Hark etxeko lanak jarriko dizkie eta haiek prestatzeko euren kabuz entsetzeko aukera izanen dute. Duten programa edo ikasturte berrian izanen duten programa prestatzeko baliatuko dituzte bakarkako klase horiek akordeoi ikasleek. Altsasuko egonaldia aisialdi jarduerekin eta igerilekura egindako irteerekin osatuko dute. Haiek ere, uda-ikastaroa despeditzeko kontzertua eskainiko dute.

## Iker Lauroba eta Itsasargiak diskoa aurkeztera

**Gaur, 22:30ean, Altsasuko Haritza tabernan**

Iker Laurobak *Zeru tolesgarria* bakarkako diskoa argitaratu berri du, auto-ekoiztuta. 20 musikari baino gehiagoren laguntzarekin, donostiarrak ia bi urte eman ditu diskoa grabatzen. Lauroba taldean dabil Iker, baina taldearen ildotik kanpo zeuden doinu lasaiagoak zituen eta haiekin ondu du bakarkako lana. Doinuak Harkaitz Cano idazleari pasa eta diskoko 14 kantuetako letrak idatzi ditu. Jazz ikutuko kantuekin batera, pop estilokoak eta gitarra soilarekin emandakoak ere badaude.

Altsasun Itsasargiak bandarekin aurkeztuko du gaur diskoa Iker Laurobak, Haritza tabernan. Aldamenen izanen ditu Iñigo Asensio (teklatua, akordeoia, gitarra), Sara Azurza (ahotsa) eta Jokin Garmendia (biolontxelo).

### Emanaldietarako lokal berria

Altsasuko Foru plazan dagoen taberna berriak, Haritzak, kultur programazioa izanen du. Gaurko emanaldiarekin abiatuko den zikloan kontzertuak eta bakarriketak iragarri ditu lastaila bitartean.

#### Egutegia

**Garilak 17, ostirala, 22:30ean**

Iker Lauroba eta Itsasargiak

**Garilak 30, osteguna, 23:00etan**

Movimiento Bola, bakarriketak.

**Agorrilak 13, osteguna,**

**22:30ean** Rumbo Rumba.

**Agorrilak 27, osteguna,**

**23:00etan** Movimiento Bola,

bakarriketak.

**Irailak 25, ostirala, 22:30ean**

Charlie & The Colours.

**Lastailak 11, ostirala, 22:30ean**

J. Lopez Jaso, M. Escrich & J. M.

Urriza



## bazterretik

### Aurkene Ormazabal

#### Bikinia

Udaran murgilduta gaude eta jadanik igerilekuak eta hondartzak bete ditugu gure bainujantzi berriekin. Hala ere, bainujantziak ez dira beti berdinak izan, historian zehar aldaketa ugari jasan dituzte gizarte aldaketa eta emakumeen askatasun sexualaren garapenari esker. 1920an iristen dalehendabiziko bainujantzi modernoa, pieza batekoa, eskote zabalarekin eta izter erdiraino iristen zena. Artilez egindakoa, bustitzen zenean hiru kilo baino gehiago pisatzen zuena. Gaine-

ra, ez zen batere arraroa galtzerdi edota kaleko oinetakoekin laguntzea.

Coco Chaneli esker hamarkada honetan beltzaranaren kontzeptua aldatu zen: zelaiari lotuta joan beharrean, aisia, kirola eta bizimodu berri batekin lotzen zen. 40. hamarkadan diseinuak Hollywoodeko jantzitegi ikusgarriekin erlazionatu zitzaizkien. Diseinuari eta estetikari garrantzi gehiago ematen zioten eta ez zuten kontutan hartzen urarekiko erresistentzia eta lehertzeko azkartasuna, garrantzitsuena gorputza liraintzea zen.

Bigarren mundu gerra eta gero AEBetako gobernuak bi piezako modelo eskaini zuen, erabilitako tela murrizteko asmoarekin, baina Hays kodigoak pantailan ikusten zenez zehazten zenez, zilborrak zentsuratu zuen. Honek, kulero altuetako bainujantziak ekarri zuen, Marilyn Monroe, Rita Hayworth edo Ava Gardnerri lotzen zaie estilo hau. 1946an ingeniari batek modelo bat asmatu zuen eta honek historian zehar aldaketa nabarmenena izan da, bainujantzi tiraduna zena eta Bikinin jarritako bonba nuklearraren ostean, bikini deitu zion.

Nahiz eta bikini 40 hamarkadaren bukaeran asmatu, hamarkada batzuk behar izan zituen gizarte onartzeko. 1950ean emakumeak nahiago zuten gorputz osoko bainujantzi eleganteak. Brigitte Bardot aktorea izan zen bikiniaren aurrendarietako bat 1953an Canneseko festibalean, non izugarriko zalaparta sortu zuen. Hala ere, bi emakume eta bi pelikulek bikiniaren onarpena ekarri zuten: Ursula Andress uretatik irteten bere bikini txuriarekin *Doctor No* filmean (1962), eta Raquel Welch *One million years B.C.*-en (1966).



# Udan dantzan trebatzen



**Altsasun 20 ikasle ari dira dantza campusean parte hartzen**

Irantzu Gonzalezek sustatutako Udara dantzan campusa martxan da igandeaz geroztik. 7 eta 16 urte arteko 20 neskek eman dute izena. Altsasuko, Olatza-

gutiko eta Ziordiko ikasleekin batera, Madrilgo bost ikasle daude dantza campusean trebatzen. Guztiak, hiru madrildar ezik, Gonzalezen ikasleak dira edo izan dira. Denak ere dantza bizi dute eta campusa hasteko "irrikitan" egon dira aurreko egunetan. Izan ere, aste batez hainbeste maite duten dantza izan da guztiaren ardatza.

**Oinarria**  
Gonzalezek goiz guztia ematen du dantzari txikiekin. Argi utzi die ezinbestekoa dela "orduak sartzea norberaren gorputza ezagutzen", malgutasuna landu eta dantzan aritzeko. Hala, dantza klasi-koan oinarrituta, entrenamendu fisikoa, balleta, dantza garaikideko koreografiak, kokapena esze-

## Segida

Gonzalezek berak aitortu digunez, "zaila da mutilak dantzan sartzea". Baina ez duetsitzen eta hurrengo urteko campusean du esperantza. "Halako eskaintza gutxi dago eta aurtengo esperientzia eta gero, heldu den urtean jende gehiagorengana iristea espero dugu", esan digu Gonzalezek. Berak, aldi berean, Altsasun dantza eskola zabaltzeko lanean "burugor" segitzen du.

natokian eta bestelakoak landu dituzte. Irakasle gonbidatuekin bestelako gaiak lantzen dituzte, esaterako: teoria (gorputzeko muskuluak, ligamenduak, luzamenduen zergatia), hip-hop, dantzarako makilajea, dantzarako jantziak...

Campusa aurrera ateratzeko hiruko bat osatu dute Gonzalezek, Amaia Urrizak eta Maider Lazkozek. Azken bi horiek dantza ikasketez aparteko tailer eta jarduerak antolatu dituzte. Igerilekura edo Donostiara ere joanen dira. Bestalde, campusean ikasitakoa igande eguerdian gurasoendako propio prestatutako emanaldi batean erakutsiko dute.



## Garabatos kontzertuan

**Gaur, 20:00etan, Urdiaingo igerilekuan**

Garabatos taldeak, hau da, Irati Lasak (ahotsa), Asier Palominok (baxua), Iñaki Gascok (gitarra), Gaizka Ocañak (gitarra) eta Mikel Manerok (bateria) kontzertua eskai-

niko dute gaur Urdiaingo igerilekuan. Hara hurbiltzen direnak rock and rollaren doinu klasikoekin bertsoekin gozatzeko aukera izanen dute. Guns and Roses, Marea, ACDC, Platero y Tu, Los del Rayo eta beste aletuko ditu boskoteak.

## 11 borroka zinema zikloa

**Etxarri Aranazko plazan hiru dokumentalen proiektzioa eta gonbidatuekin solasaldiak iragarri dituzte. Emanaldiak 22:00etan izanen dira**

Hiru dokumentalez osatutako zinema zikloa antolatu dute Etxarri Aranatzen. Emanaldi horien bidez hiru errealtate ezagutzeko aukera izanen da. Lehenik, Irlanda eta Bretaina Handiaren arteko gatazka konponbidean jartzeko prozesuan preso politikoek jokatu zuten papera

azaltzen duen lana ikusgai izan zen atzo.

Heldu den astean bi dokumental gehiago emanen dituzte. Saharar herriak aurrera egiteko darman borrokaren isla pantailan jasoko da heldu den ostegunean. Azkenik, hilaren 24an, Euskal Herriko aske guneen eta desobediencia zibilararen inguruko hausnarketa plazaratuko da. Sarek, Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak, Askapenak eta Libre dinamikak antolatu dute zinema zikloa.

**Txartel freskagarria**

**Zozketak**

**UZTAILAK 23**

**Olatzea jatetxean (Arbizu)**  
2 lagunentzako bazkaria.

**Ederne ilepaindegi eta estetika zentroan (Lakuntza)** makilaje sesioa.

**Urbasa Abentura parkean** ferrata bidea eskalatzeko 2 sarrera.

Uztailaren 16ko **SARITUA:**  
**Peio Astiz**

Oporretatik bueltan...  
**sorpresa gehiago!**



## Nonerabili

### KATE INFORMATIKA

#### IRURTZUN

% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

### KALUXA TABERNA

#### URDIAIN

Menu edo plater konbinatuarekin kafea edo txupittoa doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan.

### CITROËN SAN MIGUEL

#### ALTSASU

Total olioetan % 30eko deskontua. Pneumatikoen aldatetetan % 20 deskontua.

### IRUBIDE JATETXEA

#### ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

### SAKANA OPTIKA

#### ALTSASU

%15eko deskontua graduatutako beturreko osoetan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

### XALOK ESTETIKA, KIROL ETA NUTRIZIO ZENTROA

#### ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua, bonu, gimnasio eta jardueretan izanez.

### HOSTOAK LOREGINTZA LAKUNTZA

20 €tik gorako erosketetan %8ko deskontua, garaiko landareetan izan ezik.

### NUEVA IMAGEN

#### ALTSASU

%10eko deskontu.

### ARRUAZUKO OSTATUA

#### ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

### LOGURE

#### ALTSASU

%20ko deskontua (eskaintza berezietan izan ezik).



## G

asteko >> : eguraldia

| ostirala        | larunbata       | igandea         | astelehena      | asteartea       | asteazkena      | osteguna        |
|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|
|                 |                 |                 |                 |                 |                 |                 |
| euria: 8%       | euria: 38%      | euria: 10%      | euria: 5%       | euria: 8%       | euria: 13%      | euria: 15%      |
| Min: 15 Max: 28 | Min: 16 Max: 26 | Min: 15 Max: 28 | Min: 15 Max: 30 | Min: 16 Max: 31 | Min: 16 Max: 26 | Min: 15 Max: 26 |

: temperatura >>

|            | Max. °C | Min. °C | euria l/m <sup>2</sup> |
|------------|---------|---------|------------------------|
| Irurtzun   | 36.5    | 11      | 0                      |
| Etxarri A. | 35.5    | 8.6     | 0                      |
| Altsasu    | 36      | 10      | 0                      |
| Aralar     | 27.8    | 7.7     | 1.9                    |
| Urbasa     | 31.5    | 6       | 0                      |

: ilargiaren aldia >>

| ilgora | ilbete | ilbehera | ilberri |
|--------|--------|----------|---------|
|        |        |          |         |
| 24     | 31     | 7        | 14      |

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

## Bazkide zozketa

GARILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri museorako 2 sarrera, Katxiporreta lotea, Lacturale lotea, Artium museorako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Aquariumerako sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Katxiporreta lotea, Lacturale lotea, Artium museorako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Aquariumerako sarrera.

Ekain berri

# >> 11 galdera

Nicolas Arbizu Gabirondo

Tokiko historian aditua

Testua: Alfredo Alvaro Igoa

- 1. Galtzadaren izenez, lehenik: Berreñoa edo Bernoa?**

Ataungo mugan dagoen parajea da. Aipamena egiten duen dokumentu zaharrenean, Burundako foruan (1.208 urtean), Bernoa aipatzen da.
- 2. Paper arteko ikerketa egin eta gero landa lana egitea falta zen?**

1995ean Iturmendiko udalean sartu nintzen. Kultur arloan galtzada, Bernoa eta Santa Marina arteko zatia gutxi gorabehera, seinaleztatu eta haren berri ematen duen informazio panela jarri genuen herrian (Konsistorial kaleko berdegune batean). Baina ibilbidea esku-orriekin eta bestelakoekin "saltzea" falta da.
- 3. Zein aritu zen lan hartan?**

Ni eta beste batzuk. Zati bat zaharberritu zuten lehenak soldaduskara joan nahi ez zuten kontzientzia eragozleak izan ziren. Gizarte lana egin behar zuten, lan bat nahi zuten eta haiek izan ziren, ia Pagozabalen, galtzada zati batzuk eta Guardian-txabolata berreskuratu zituztenak. Azken horretan tabako aduana zegoen.
- 4. Beraz, hau galtzada azalarazteko lanen bigarren aldia litzateke?**

Bai. Nire kabuz galtzadaren ibilbidearen nondik norakoa ikeritzen aritu naiz eta aurkikuntzeekin harritu naiz. Urdiaingo galtzada guztia azalarazteko Mariano Galartzak egindako lana ikusi eta gero, zerbait egitea pentsatu genuen. Kontua da Iturmendin hiruzpalau km direla, Bakaikun bat eta Etxarri Aranatzen beste hiru bat.



## Logotipoen sorkuntza eta kanpainetarako hainbat euskarriren garapena

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

kamisetak, lonak...

- 5. Auzolandegira etorri direnak, zer moduz?**

Ongi. 10 neska gazte eta bi begirale etorri ziren. Hegaldiengatik eta gaixotasunagatik hiru aurretik joan dira. Egunero lau orduz aritu dira, 8:30etik 13:00etara. Gogor lan egin dute. Iturmendiko apaizetxea udalekutarako prest dugu eta han egon dira.
- 6. Nolaz iritsi ziren?**

Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterolari galtzadarena aipatu nion eta berak boluntarioekin lan egiten duen De Amicita erakundea ezagutzen zuen eta horrela iritsi dira.
- 7. Zein lan egin duzue orain arte?**

Galtzadaren bi ertzak garbitzea, nondik doan erakusteko. Gainera lurra aitzurra eta isatsaz kendu eta zuhaixka txikiak moztu ditugu. Herri bakoitzean ardura-dun bat zegoen. Toki batzuetan 40 cm zulatu beharra dago eta beste batzuetan lur-azalean dago.
- 8. Gero?**

Seinaleztatze zehatza egin behar litzateke gero. GPSaren laguntza Urdiaingo galtzada plano batean jaso dago. Iturmendin egin genuen, baina ibilbide berriak opatu ditugunez, moldatu egin behar dugu. Esaterako, Guardian-txabolata aldera seinaleztatu genuen. Ezkerrera beste bide bat dago. Baina bietan ez zegoen galtzada arrastorik. Erdian
- dagoen hariztian begiratu eta han agertu da.
- 9. Galtzadak jendearen arreta bereganatu du?**

Interesa piztu du. Inportanteena hori da.
- 10. Eta orain?**

Bultzada nola eman aztertu behar litzateke. Sakanako Mankomunitatea badugu, baina herri bakoitzean gureari begiratzen diogu. Kulturalki eta historikoki hainbat herri batzen eta lotzen duen gauza bakarretakoa da galtzada. Nire ustez hori oso garrantzitsua da eta bulkatu beharra dago. Nola? Auzolanean edo bestelako formulak bilatuz. Nork bere herriko historia ezagutzeko bidea da hau. Hasteko udazkenean, galtzadan bertan, hitzaldiak emanen ditugu, irakasleei eta zuzenduta.
- 11. Zein litzateke helburua?**

Galtzadari balioa ematea. Hasieran, sikiera, zati txiki. Baita bidean dauden gauzei ere. Esaterako, bide ondoan trikuharriak edo ikazkinen txondorren arrastoak daude. Gainera, Astorga-Bordeleerromatar galtzada dugu, Sakana zeharkatzen zuena eta hasierako Donejakue bidea zena (XI-XII. mendeak). Guk gure basoak eta paisaiak baloratzeke modua izan daiteke ere. Turismoari eta historiari lotutako jarduerak intergarriak egin daitezke.

Gehiago 3. orrian.